



Sukaldaritza euskaraz

Izen-deiturak
euskaraz

Belar-bolen
plastikoen
bilketa

Xixio
Barandiaran
Orbea
mountain-bike
taldeko
zuzendaria



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

egiteko prestatuak: komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

Tel-Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA



Edozein motatako teiltatuak

JAKINTZA IKASTOLA


Altamira auzoa ORDIZIA ☎ 943 16 05 40 Faxe: 943 16 07 90 E-mail: ordizia@ikastola.net

- ⇒ Herrigintzatik sortutako eskola eredua
- ⇒ Kalitatezko euskal eskola
- ⇒ Bertatik gestionatzen dena
- ⇒ 2tik 18 urtetara eskola berean
- ⇒ Euskaraz bizi
Eleaniztasuna: 4 urterekin hasita
- ⇒ Zerbitzu interesgarriak goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara
(haur zainketa, bertako jangela eta autobusa)
- ⇒ Deitu eta zurekin elkarrizketatuko gara
(943 16 05 40)



Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multifertas Orain familia osoarentzat.

**Multiofertas
MULTIOPTICAS**



Eskaintza honek 2000-02-29ra arte balio du

Bonardi bilduma
Denontzat



Erref: B0003

3.800 pta.n
22,84 €

Betaurrekoak



Erref: B0006

*Armañoia + Kristalak**
60 urtetik gorakoentzat **8.900** pta.tik aurrera
53,49 €



Erref: GTV550

Giulio Tabacchi betaurrekoak *Armañoia + Kristalak**
Gazteentzat **13.900** pta.tik aurrera
83,54 €

EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO

Lente Progresiboak

Gurasoentzat **19.500** pta.tik aurrera
117,20 €

*Eskaintza honek lente zurientzat balio du (+/-4ko ESF. +/- 2ko ZIL.)

REF. N° 16499

**MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA



Non zer

6 Eskutitzak

7 **TXANDAKA:** Jon Etxeberria

9 **KATE MOTZEAN:** Ana ----

10-11: Kartak euskaraz Beasainen

12: Belar-bolen plastiko bilketa

15-24 KRONIKAK

ORDIZIA 13: Amnistiaren aldeko baraualdia

IDIAZABAL 14: Bielorrusiako haurrentzat familia bila

ITSASONDO 15: Mikel Gaztañaga txirrindularia

ORMAIZTEGI 15: Baso-Txulon urteko batzarra

ZEGAMA 16: Aitxuriko berriak

LAZKAO 17: Ikastaroak

ATAUN 18: irakurzaletasuna gorantz

OLABERRIA 19: Xabier Berasategi pala txapeldun

MUTILOA 19: Mus txapelketa

ZALDIBIA 20: Kultur ekintzak

BEASAIN 21: Idazlehiaketa.

SEGURA 22: 3. mundua

GABIRIA 23: Ahari jokoa

ZERAIN 23: Santa Ageda

25 **KIROLA:** Xixio Barandiaran

26-27: AGENDA

28 **KULTURA:** Patxi Epelde

29 **DEBALDEKO IRAGARKIAK**

30 **ZAHARRAK BERRI - FOTO**

ZAHARRA: Lupulua biltzen

Izenak eta deiturak euskal grafiaz jartzeko nahikoa da jaiotza-erregistroan euskaraz idaztea

Orain arte, izenak euskaraz idatzita erregistratzeko, Bake-epaitegiak edo Epaitegiak nahiz Udal txikietako jaiotza-erregistroetako Erregistroetan egin behar zen idazketa hori edota lehendik idatzita zegoen izenaren itzulpena edo ortografi aldaketa.

Deiturak edo abizenak euskarazko grafiaz jartzeko orde, eskaera berezi bat egin behar zitzaion Madrilako Justizi Ministroari hainbat dokumentuz lagunduta. Besterik ezean, Udaletako Euskara-zerbitzuok prestatu izan ditugu herri-tarren eskaera horiek.

Orain, 15 bat urteko ahalegin, lan eta borrokei esker, Estatuan ateratako azaroren 5eko 40/1999 Legearen arabera, lehen izenak bezalaxe, abizenak edo deiturak ere, Bake-epaitegian, Epaitegian edo Udal txikietako erregistroetan bertan euskaraz idatzita erregistra litezke edota lehengoan idazketa alda liteke, lehen izenekin egiten zen bezala. Lege hori, Erregistroetarako, 2000ko otsailaren 6an sartuko da indarrean.

Kontuan hartu beharreko gomendio eta ohar batzuek aipatu beharra dago:

- Abizen edo deituraren idazkera-aldaketa, jaiotza-erregistro zibilean egin behar da, bestela ez du benetako baliorik. Jaiotza-erregistroan eginez gero, handik ondorioztatzen diren dokumentu guztietan (Ezkontza-agiri, Famili liburu, NA, Pasaporte, etab.) alda eta exigi daiteke jaiotza-agiria oinarritzat hartuta. Aldaketak behin egiten dira betirako eta gero apurka-apurka beste dokumentu, agiri, zerrenda eta gainerakoetan gauza-

tuz joaten dira norberak eskatu eta frogatu ahala.

- 18 urtetik beherako seme-alaben aldaketak, gurasoek egindako eskaera berean eska daitezke, beraz, aldaketa gurasoek egitea komeni da, hala, familia guztiarenak batera egiteko.

- 18 urtetik gorakoek, berek, pertsonalki, eskatu behar dute beren aldaketa.


- Deiturak edo abizenak, Euskaltzaindiak eta Espainiako Justizi Ministerioak elkarlanean argitaratutako Euskal Deituren Izendegia izeneko liburuan azaltzen direnaren arabera idatzi beharko dira: adibidez Muxika eta ez Mujika edo Mugika. Izendegi horretan ez dauden abizenen euskarazko idazketa erregistratzeko, nahikoa izango da Euskaltzaindiari abizen horren ziurtagiria eskatzea eta harekin idazkera frogatzea.

- Abizen edo deituren idazkera-aldaketak ez du inolako eragin txarrik eta kalterik Notaritzetan eta bestelako Erregistroetan (Merkataritzakoan edo Ondasunenean), izan ere, argi eta garbi, beti froga baitaiteke Epaitegi edo Erregistro bidez, idazkera-aldaketa zein datatan eginga izan den. Beraz, horrek ez du senidetatsunik eta bestelako ahaidetasunik zalantzan jartzen.

- Edozein zalantza edo arazo izanez gero, jo Udaleko Euskara-zerbitzura eta norbere herrian halakorik ez denean, Euskara-zerbitzua dagoen Udalen batera.

Andoni Sarriegi (Beasaingo Euskara-zerbitzuburua)

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxa: 94388 27 19
Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio
Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Iñaki Ugalde, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua, Mari Flor Mendizabal, Nagore Etxeberria, Andoni Sarriegi, Naroa Arrieta eta Jon Etxeberria.
Fotokonposizio eta maketazioa: **GOIERRITARRA**. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 7.800 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**

Pakito Mujika

Otsailaren 8an Frantziak Espainiara extraditatu zuen Pakito Mujika ordiziarra. 8 urte Frantziako kartzeletan egin ditu ordiziarak. Soto del Realeko kartzelan sartu dute.

Mikel Korta

Urtarrilaren 29an Espainiako Polizia Nazionalak Mikel Korta ordiziarra atxilotu zuen Madrilgo Barajas aireportuan, Mexikotik zetorrela. Herri Batasunaren Nazioarteko sareko kide izatea leporatu diote. Kortaren eta beste 7 atxilotuen askatasuna eskatzeko manifestazioak egin ziren Ordizian eta bilkura ixila Idiazabal.

Ordiziako Jakintza Ikastolako LABeko kideek oharra bidali digute Ikastolako gurasoa den Mikel Kortaren askatasuna eskatzuz. *"Egoera honek gure artean kezka eta haserrea sortu du. Alde batetik, jakin badakigu, Mikel indar zanpatzaileen eskuetan tratatu txarrak jasaten ari dela. Bestalde, gure herriaren aurkako eraso anker hauek ez dute inondik ere Euskal Herria eraikitzen laguntzen, behin eta berriro bide demokratikoak, eta pake eta justizia gogoak zapuztu baizik",* dio oharrak. LABeko kideek bat egiten dute 4 urteko bere seme Mattinekin eta haren familiaren sufrimenduarekin.

Gose greba

Urtarrilaren 29an Txemi Arteaga Beasaingo presoak mugagabeko gose greba hasi zuen. Valentziako kartzelan dago Arteaga. Belen Gonzalez lazkaotarrak, Frantziako Fleury Merogisen dagoenak ere bai. Bestalde, Maria Jesus Arriagak gose greba utzi behar izan zuen, 37 egun baraurik egon ondoren.



Zegaman Euskal presoan aldeko aldarrikapenak

Zegamako Jarraikoek jakitera eman digutenez, urtarrilaren 21ean udaletxean 7 lagunek hartu zuten parte Jarraik deituriko itxialdian. Presoen egoeraren inguruan gogoeta egin eta beraien eskubideak errespetatu daitezela eskatu zuten. Bestalde, urtarrilaren 22an, Kasinoko bertso-jaialdian 4 solidario hurbildu ziren eszenatokiarekin. Jarraikoen esanetan, entzuleek txalo artean hartu zituzten.

Markel Olano EBB-n

Beasaingar gaztea EAJren Euskadi Buru Batzarreko (EBB) kide izendatua izan da.



Erga Omnes taldeak lehenengo diskoa kalean

Ordiziako Erga Omnes musika taldeak lehenengo diskoa aurkeztu zuen otsailaren 3an. Donostiako Pop-rock musika lehiaketa irabazi zuten iaz ordiziarrek eta saritzat diskoa kaleratzea eta kontzertu bat izan zituzten. Iñaki Munduate, Joseba Basarte eta Xabi Lopezek osatzen dute taldea. Ingelesekin kantatzen dute eta lehenengo lan honekin Europako merkatuan sartzea dute helburu. Lau kantuk osatzen dute diskoa.



Ingelesak Txindoki-Alkartasuna Institutuan

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuak eta Ingalaterrako North Devon Collegek, Europar Komunitateko 'Lingua E' programaren babespean, urte betez prestatuturiko elkartrukeketaren lehen zatian parte hartu duten ikasle eta irakasleak dira argazkikoak. Devoniarrek egun batzuk pasa dituzte gure artean Euskal Herriko geografia, gastronomia, ohiturak, Hezkuntza sistema... gertutik ezagutzeko aukera izan dute. Esperientzia ezin hobea izan omen da, eta elkarrekin egun oso onak eta ekintzaz beteak igorri dituzte. Hamabost ikasle eta bi irakasle egon dira gure artean eta denbora gutxi barru Txindoki-Alkartasunako beste hainbeste Devonera joango dira elkartrukeketaren bigarren zatia burutzera. Bertan, besteak beste, elkarrekin garatzen ari diren proiektuari 'Aisialdia eta osasunerako ohiturak gure gazteen artean' amaiera eman gidoite.



Alkartasuna-Txindoki Institutukoak nagusi Azkue literatur sariketan

Euskaltzaindiak antolatutako Azkue literatur sariketan Beasaingo Alkartasuna-Txindoki Institutuko ikasleak nagusi izan dira 16-18 urte bitarteko artean.

Poesia sailean **Unai Baztarrika** beasaindarrak lehenengo saria jaso du. Gaur egungo arazoak jorratzen ditu gazteak bertan. 50.000 pezetako saria poltsikoratu du.

Jon Lekuona zeraindarrak bigarren saria eskuratu du, prosan. Hitanoaz idatzi du. 40.000 pezetako saria jaso du.

Atal berean, Beasaingo **Miren Imazentzat** izan da hirugarren saria, 30.000 pezetakoa. Bosniako gerrari buruz

idatzi du narrazioa.

Maidier Alkalde beasaindarrak eta **Oroitz Maiz** gabiriarrak aipamen berezia jaso dute. Maidierrek herritarrek postariak duten iritzia kontatzen du eta Oroitzek, Afrikar baten eta Europar txuri baten arteko maitasun istorioa kontatzen du, mugak sortzen dituen zailtasunak lekuko.

Gehienak inoiz saririk lortu gabeak dira. Lan guztiak argitaratu egingo ditu Bizkaia Bilbao Kutzak.

Beasaingo institutuak aurkeztu ditu lan gehienak Azkue sariketara. Bertako irakasleek adierazi digutenez, idazlanen mundu hau ondo lantzen baitute.

Langai: Euskal Lan Zerbitzua

Eusko Jaurlaritzaren enplegu zerbitzua da Langai. Hiru urte daramatza lanean Langaik. Doako zerbitzua da. Euskal Autonomia Erkidegoko lan poltsarik handiena du, 150.000 lagun daude bertan.

Lana behar dutenei lana aurkitzea da helburu, bai langabezian daudenei, bai lanpostu hobeagoa behar dutenei. Lan poltsa honetatik abaituta, enpresei, giza-baliabideak eskaintzen dizkie, dagozkien perfilekoak. Hiru urte hauetan, 8.000tik gora enpresei erantzun die eta 40.000 lanpostu gestionatu ditu.

Langairen lan poltsan sartzeko lau aukera daude: Laguntzaile zentruetara hurbilduz (Goierriko Lanbide Eskola); Langairen zuzeneko telefonora, 901.222.901 deituz; Kutxa eta La Caixaren kutxazain automatikoen bidez; edo eta Euskadiko Kutzaren Telefono Gaztera, 901.200.000 telefonora deituz.

Hurbileneko laguntzaile zentruak elkarriketatua izan eta behin kurrikuluma osatuta, lan poltsan sartzen da. Momentu horretatik aurrera lan eskaintzaren bat dagoenean, Langairen deia jasoko da.

Enpresek giza-baliabideak behar dituztenean, eskualdeko laguntzaile zentruetara harremanetan jarri besterik ez du. Zuzenean Langaira ere dei daiteke.

Goierriko laguntzaile zentrua: Goierriko Herrien Ekin-tza Fundazioa, Goierri Lanbide Eskolan. Telefonoa: 943 88 44 01; Faxa: 943 88 83 51. Harremanetarako pertsonak: Virginia Salaberria, Estitxu Urkia eta Imanol Aranburu.

Donejakue Bidea monumentu multzoa

Eusko Jaurlaritzak Donejakue edo Santiago bidea ondare kultural izendatu zuen urtarrilaren 25ean, monumentu multzoa kategoria emanez. Izendapen honekin bidea bera eta berarekin lotuta dauden 202 elementu babestu nahi dira. Dekretuak bi bide nagusi zehazten ditu, barrukoa eta itsasaldekoa. Barrualdeko bidean Legorreta, Itsasondo, Arama, Ordizia, Beasain, Olaberria, Idiazabal, Segura eta Zegama daude. Herri historikoen artean Ordizia eta Segura.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Utikan otsoak

Mattinek tristura, kezka, haserrea, negarra antzeman du amaren aurpegian eta galdetu dio:

- Zer gertatzen zaizu amatxo?
- Aita eraman digute...

"Mikel Korta eta beste zazpi kide atxilotu zituen espainiar gobernuak joan den urtarrilaren 29an"

- Aitatxo eraman? Nork? Zergatik? Orain Mattinen aurpegia erabat aldatu da. Urduri dago.

- Otso beltzak bere kobazulora eraman du, izan da amaren erantzuna.

- Baina, aitatxo txintxo da. Zergatik?

- Horrexegatik Mattin...

"Mikel Korta eta atxilotutako lagunek egin duten gauza bakarra Euskal Herriaren errealitatea munduan zehar ezagutzera ematea izan da. Gobernuaren erantzuna: tortura eta espetxea"

Mattinek lagun asko ditu, era guztietakoak gainera, handiak eta txikiak, gizenak eta argalak, beltzaranak eta ilehoriak eta guztiekin ondo konpontzen da euskaraz mintzatuz.

Jakin badaki, otso beltzari ez zaiola euskaraz hitzegitea gehiegi atsegin, ez zaiola ere, ikasgelan edota kalean egiten dituzten zenbait dantza atsegin, ez zaiola kontatzen dituzten zenbait ipuin atsegin, ez zaiola ere...

Mattinek ondotox daki, otso beltzari aurre egiteko lastozko etxetxoak ez dutela ezertarako balio.

Mattinek aitaren bizkarrean ibili nahi du, ezpata motza astinduz, haizeari desafioka Ordiziako kaleetan zehar.

Mattinek aita behar du. Guk ere, Mikel eta kobazuloan dauden lagun guztiak gurekin behar ditugu, otsoari aurre egiteko eta harritzko etxe sendoa eraiki

ahal izateko.

Utikan!

Ama, Mikel bisitatzer doa kobazulora eta Mattin ikastolara, ez zaio ahaztu, ez! hurritz makila, izan ere, Santa Ageda eskerako abestien entsaioa baitauka arratsaldean.

Ordiziako Jakintza Ikastolako guraso eta irakasle talde bat

Euskal Selektzio Nazionala

Egoera politiko berri baten lurrun gazi-gezak usaintzeko aukera izan dugu azken hilabeteotan, hau dela eta ez dela jardun izan baitira hedabideak gelditu ere egin gabe. Baina hainbeste alditan aipatu erai-kuntza nazional horretan, bada alde batera utzi ezin den alderdi bat, kirolarena alegia. Euskal selektzio nazionalen aldeko aldarrikapena gero eta indar handiagoa hartzen ari da, hala ere, borroka hau ez da atzo goizean bertan jaioa.

Urte askotan zehar eta egoera politiko ezberdinek baldintzatuta garatu den prozesu luze honek, 1915ean izan zuen hasera, futboleko lehen euskal selektzioarekin batera. Oihartzun nabarmenagirik ez zuen lortu ordea, eta hainbat urtetan bazterturik mantendu zen. Gerra zibilaren garaian, 1937an hain zuzen ere, nolabaiteko berpizkunde bat ezagutu zuen Jose Antonio Agirre euskal lehendariaren eskutik. Honek, tropa nazionalistek zuten diru falta ikusita, selektzioa berregitea eskatu zuen, finantziario modura. Parisen hasi eta Europa osoan zehar aritu ostean, Mexikora jo zuten (1938an), bertako futbol liga ofizialean parte hartu eta irabazi egin zutelarik. Espainian eta Euskal Herrian ordea, egoera politikoa zeharo aldatu zen, eta gerraren ondorioz ezarritako agintari faxistek ez zuten euskal selektzioa onartu, desegin

beharrean aurkitu zelarik. Frankismoaren urte luze eta latz haietan bazterturik egon ostean, demokraziaren etorrerarekin batera (1979) berriz jaio zen. Aro berri honek ere ezagutu du zailtasunik ordea. Hainbat talde ez zegoen bere jokalariai selektzioari uzteko prest, eta zortzi urteko geldialdi bat ezagutu zuen. 1988tik aurrera, Euskadik partidu ugari jokatu du talde handien aurka, porrota zer den jakiteko paradarik izan gabe.

Iragana alde batera utziz, orainaldiari ekin behar diogu, egungo egoera aztertzeko. Lehen aipatu bezala, kirolak badi nolabaiteko lotura bat politikarekin, eta hori eskatzen duen kasurik argiena da Euskadiko taldearena. Gure eremu geografikoa zatiturik aurkitzen dela denok dakigun gauza da, eta honek berebiziko garrantzia du jokalariai euskaldunek (Ipar eta Hegoaldekoak) batzeko duten zailtasuna ulertu nahi bada. Ezintasun hori gainditzeko, Esait taldeko Martxel Toledo Garmendiak zera proposatu zuen: *"Euskal Herri osoa ordezkatzeko duen kirol instituzio baten beharra ikusten dut, Espainia eta Frantziaren menpekotasunetik alde eginda, Euskal Herria nazio bezala errespetatzeko duena eta ofizialtasun osoarekin besteen aurrean ordezkatzeko gaituena"*.

Ildo beretik jarraituz, beste pausu bat izango litzateke, bertoko liga eta txapelketak antolatzea, euskal kirolariak atzerrira joan beharrik izan ez dezaten.

Euskal Herriko selektzioek mundu mailan ofizialki ibiltzeko adina kalitate badutela erakutsi dute, hala nola futbol selektzioak, zeinak Nigeriakoa (munduko futbol txapelketetan aritua) bost eta bateko emaitzaz gainditu zuen. Partida honen ostean, Laurentzi Gana, Euskadiko Futbol Federazioako lehendakaria dena, datarren udan selektzioak Hego

Amerikan zehar jira moduko bat egiteko aukeraren inguruan mintzatu zen.

Euskal selektzio ezberdinak mundu osoan zabaltzea, herri txiki hau atzerrian ezagutarazteko ateak irekitzea litzateke. Hau ikusita onartu zen Gasteizko Parlamentuan 1998ko uztaillean, Kirol Legea, euskaldun guztien artean ofizialtasunerako esperantza berri bat zabaldu zuena. Baina lege honek ez du ezertxo ere aldatu, eta euskal kirolariak oraindik ere espainiar eta frantziar selektzioetan militatu behar izaten dute, Aratz Gallastegi euskal errugbilariaren moduan ezezkia esaten ez badute behintzat.

Arazoaren konponbidea beraz, ez dago kirolaren arloan bakarrik, politikarenean ere sarturik dago. Euskal Herriak kanpora begira onarpen eta indar politiko gehiago behar du, eta hau lortzeko erreminta garrantzitsua izan daiteke kirolarena. Baina bide hau jorratzerakoan, lehenik eta behin aldatu beharrekoa, kontzientzia aldetik hainbat euskaldunek duten arazoa da, denok baikara euskaldun eta euskal selektzioaren aldeko honek jokatzenean, baina espainiar haiaikakoa zelaian ari denean... kaleak hutsik.

Arazo hau gainditu ondoren, eta benetan euskaldunok nahi duguna euskal selektzioa dela argi utzita, honen alde egin behar dugu, nahiz eta borroka honek konnotazio politikoak hartu. Euskadiko futbol taldearen entrenatzaile den Jose Angel Iribarrek elkarriketa batean esan zuen moduan, *"azken finean gizarteak du hitza eta politikariak egin behar dutena nahi hori erraztea da. Azken hitzak politikarien borondatean egon beharko luke, baina aurrerantzean bide horretatik joan beharko genuke"*.

Arkaitz Apalategi



**Irati
Goikoetxea**

(Goierriko Bertso
Eskolako ikaslea)

Moda

Doinua: Iparragirre abila dela

Hogeita hamasei tailak pizten du aunitz gazteren desira, niki estu ta soineko motxa gorputz finaren neurria, Christian Dior nahiz Astore, Adidas bada hobe, Armanik hartuz segida, kontsumista den gizarte hontan moda, modan ipini da.

Diru morrontzak hartaturik setati ohi gera jardun, azal hutsezko mundua dela ez al da bistan ezagun, marken markik ez dela, bakoitza nahi bezela, kalera gaitezen lagun, eta modak gu alda aurretik moda guk alda dezagun.

Eskola-kirolari buruz hausnarketa

Eskola-kirola, hitzak berak dioen bezela eskoletan egiten den kirola da, zehatzago esanez, eskolako ordutegitik kanpo 10-14 (16) urte bitarteko haur eta gaztetxoek egiten duten kirola. Eskola kirolaren helburu nagusienak hauek dira teoriarik: alde batetik, umeei ahalik eta kirol ezberdin gehienak ikusi eta praktikatzeko hauetako batean espezializazio bizkorregia eman ez dadin; bestetik, aspektu hezitzaile eta ludikoak konpetizioa, errendimendua baino garrantzitsuagoak izatea (gero praktikan?).

Ikasturtean zehar beraz, haurrek kirol ezberdinak praktikatzeko aukera, askotan "obligazioa", izan ohi dute. Horrela ikastetxetako ordutegitik kanpo (6 ordu inguru egunean) ingeles, matematika, informatika eta beste hainbat partikularrez gain, futbola, saskibaloia, atletismoa, pilota, tenis...-eko entrenamendu saioak izan ohi dituzte. Larunbata iritsi eta futbola, saskibaloia, atletismoa, pilota, tenis...-eko txapelketak izan ohi dituzte ia larunbatero (batzutan 2 edo 3 txapelketa ezberdin egun berean). Eta batzutan astea ondo bukatzeko krosak korrika egitera joan ohi dira igande goizetan. Eta haur hauek noiz dute beraiek nahi duten bezala jolasteko aukera? Eta beraien gurasoek noiz dute beraien haurrekin egoteko denbora?

Oso ondo iruditzen zaigu haurrek ahalik eta kirol ezberdin gehiena praktikatzeko ematen zaien aukera. Baina kirolak gaur egungo gizartean horrenbesteko garrantzia badauka hezitzaile bezala, ez ote litzateke hobe soin-hezkuntzako klaseei merezi duten bezalako garrantzia ematea eta haur-gaztetxo hauek astean ordubete edo 2 bakarrik izan ordez, soin hezkuntzarako 3 edo 4 ordu izatea eta klaseko orduetatik at pakean uztea. Horrela, agian ikasleek soin hezkuntzari gainerako ikasgaiei ematen dien garrantzi berbera emango liekete. Baina ikasleek eman ahal izateko lehenago ikastetxeek emango beharko liokete (hezkuntza arduradunek) eta hauek geroz eta gutxiago ematen diote.

Urte batzuk sistema berdina jarraitu ondoren gogoeta sakon bat egiteko momentua dela iruditzen zaigu eskola kirolari buruz. 14 urterarte partaidetza dudarik gabe oso handia izan ohi da kirol gehienetan eta 14 urtetatik gora zer pasa ohi da? Zein da ordurarte kirola egin duen gehienak, adin horretatik aurrera kirolik ez egiteko arrazoiak? Gure ardura 10-14 urte bitartean kokatu ordez ez ote litzateke hobe 14-18 urte bitartean kokatzea? Eskola kiroleko arduradun, soin hezkuntzako irakasle, guraso, Diputazioko eskola kiroleko arduradun, klub... artean arrazoiak aztertu eta 14 urtetatik aurrerako gazte hauei kirol mailan irtenbide egoki bat ematen saiatzeko ordua da. Edo kirola zer da, 14 urterarte eta 30 urtetatik aurrera (gizentzen hasitakoan, osasun arazoren bat izandakoan...) egin behar den zerbait?



Jon Etxeberria
Soin Hezkuntzako
Irakaslea



X ENKIEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurria

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN





Naroa Arrieta
Dietista eta Elikagaien
zientzian eta
Teknologiaren
lizentziatua
KEMEN K.O.Z.

Prestaketa teknika gehienek elikagaietan zenbait aldaketa sortarazten dituzte argi eta garbi, horietatik nabarmenenak, ezaugarri organoleptikoen aldaketak dira: elikagaien textura, usain eta zaporea, hain zuzen. Halere, nabaritzen ez ditugun beste zenbait aldaketa sortzen dira; *mantenugai* edo nutriente kontzentrazio murrizketak. Aldaketa hauek onuragarriak izan daitezke, baldin eta prestaketa teknikak beharrezko diren elikagaietan (haragiak, arraiak, zenbait barazki eta lekadunak) eta modu egoki batean erabiltzen badira.

Sukaldean dabilenaren helburua *janari goxo* bat preparama bada ere, kontutan izan behar dira hainbat gauza:

Jakiak prestatzeko teknika egokiak

✓ Beroa edo suaren erabilpenak *liseritze maila hobe* tzen duela, haragi, arrai, arraultza edo lekadunet proteinen erabilpen handiagoa lortuz.

✓ Sukaldatze teknika gehienek *bitamina eta minerale* en galerak sortarazten dituztela.

Orohar, gustoko dugun janari hori prestatuz mantengaien galerak murriztu eta osasunarentzat onuragarri izatea lortzea nahi baldin badugu, sukaldatze tekniket buruz honako hau jakin beharko genuke:

● **Lurrin egosketa;** bitamina eta minerale galerak oso txikiak dira. Barazkiak eta zenbait arrain egosten dira teknika honekin.

● **Uretan egosketa;** C eta B taldeko bitaminak uretan disolbaturik gelditzen direnez saldak aprobetxatu daitezke (barazki, haragi saldak). Galera hauek murrizteko ur kantitate txikia, elikagai zati handiagoak eta

denbora motzagoak erabiltz lortu dezakegu. Barazkiak, zerealak, lekadunak eta zenbait haragi egosteko teknika oso erabilia da gurean.

● **Oliotan frijitzeak** janariak koipetsugoak bilakatzen ditu, elikagaietan dagoen ura galdu eta horren ordez olio xurgatzen baita. Olio xurgaketa hau minimizatu daiteke elikagaiak duen azaleko ura ondo lehortuz, olio kantitate handiagoak eta tenperatura altuagoak erabiltz. *Oliba* olio erabiltzea gomendatzen da tenperatura altuenak honek jasaten baititu.

● **Etxeko labeak eta barba-**koak erabiltzen direnean tenperatura oso altuak ez erabiltzea gomendatzen da (250 ° C tik gora), janariak erretzen edo ke kutsagarriak ez sortzearen.

● **Mikrouhinen** bidez berotuz gero, janari ura edo salta izatea beharrezkoa da, honen bitartez berotzen baitu janaria.

Lehiaketa

Galdera

Zein menditan dago Goierriko mendizaleek Luis Pedro Peña Santiagoren omenez jarritako oroitarria?

Erantzuna otsailaren 7rako bidali behar da, Ordiziako 124 postakutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria Luis Pedro Peña Santiagoren 'Bota zahar batzuei' liburua eta GOIERRITARREN kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Zegamarra.

Irabazlea:

Maidar del Olmo (Ordizia)

VOLVO

TOYOTA




ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

URDANETA-OIANGUREN

- ✓ Kalitatezko heziketa integrala.
- ✓ 2-19 urte zentru berean.
- ✓ Esperientzia.
- ✓ Metodologi berritzaile eta aktiboa.
- ✓ Eleaniztasuna (Ingelera, frantsesa, alemaniera...)
- ✓ Aukera zabala eta gaureguneratua.
- ✓ Jangela, garraioa, kirola, euskal ohiturak...

IZEN EMATEA: OTSAILAREN 7tik 18ra, biak barne.

Informazioa: 943 882 780 - 943 161 268 - 943 880 862

012279aa@hezkuntza.net
(Haur eta Lehen Hezkuntza)

oiangurenbhi@jet.es
(Bigarren Hezkuntza)

Euskara txukunean

Jakien hiztegia

Beasaingo Udalak jatetxeetako kartak euskaratzeko martxan jarritako ekimenaren berri duzue hurrengo orrian. Guk ere euskarazko sukaldaritza ikasi nahi dugu eta hona hemen adibidetxo batzuk:

Azpizuna = solomillo
Otarraínska = langostino
Budina = flan
Zurrapaki = sorbete
Ziazerba = espinaca
Zainzuria = espárrago
Muxila = almeja
Gatzatua = cuajada
Hirugihar = tocino
Lukainka = chorizo
Barrengorri = champiñon
Arrautzopila = tortilla
Izokina = salmón
Hostorea = milhoja
Kukulu = cogollo
Olagarro = pulpo

Filme bat:

Lolita, Kubrick-ena.

Genero bat:

Zine beltza.

Aktore bat:

Gary Grant.

Aktoresa bat:

Victoria Abril.

Areto handia ala txikia?

Handia.

Zinemara bakarrik ala lagunarekin?

Berdin zait.

Zein filmeri emango zenioke aurtengo Oscarra?

Ghost Dog.

Zeini ez zenioke sekula emango?

El paciente ingles.

Negarrik egin al duzu zinean?

Bai askotan.

Zein filmerekin lo hartu duzu?

Tren de sombras.

Filme bat bukatu aurretik inoiz atera al zara?

Bai, 'Scream' ikustera joan nintzenean.

Zineman patatak eta gominolak, bai ala ez?

Batzutan bai, besteetan ez, filmearen arabera.

Filmeak itzulitakoak ala jatorrizko hizkuntzan?

Jatorrizko hizkuntzan, dudarik gabe.

Filme bat egiteko gaia:

Bakardadea.



Ana Cabeza

GOIENIZ Zine Kluba



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-AK eta abar
× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

Beasaingo Udalaren ekimenez: 'On dagizuela janak eta kalterik ez

Euskal sukaldaritza Beasainen:

Beasaingo Udalaren ekimenez herriko jatetxeetan kartak euskaraz eskuratu ahal izango ditugu. Sukaldaritzako euskarazko hiztegiaren hutsune handia baldin badago ere, Andoni Sarriegi beasaindarrak egin ditu itzulpenak, eta sukaldaritzako hiztegi garrantzitsua osatu du. Jatetxeen aldetik erantzun ona jaso dute. Orain herritarren esku dago euskarazko kartak erabiltzea.

Beasaingo jatetxeetan euskara hutsezko kartak egitea da Beasaingo Udaleko Euskara-batzordearen erronka nagusia. Euskara-batzordearen barruan merkatariei eskaintzen zaien zerbitzua da honako hau ere.

Eguneroko menuak, kartak, ogitartekoak, plater konbinatuak... ematen dituzten jatetxe eta tabernetako menuak hartu eta euskaratu egin dituzte. Diseinu txukun batean itzuli dizkiete tabernariei beraien launa karta. Guztia dohainik.



Euskarazko karta edukiko duten taberne ezaugarri berezia izango dute, 'On dagizuela janak eta kalterik ez edanak' leloarekin.

Hutsune handia

Euskararen sukaldaritzako hiztegi bateraturik ez dago eta lan handiena horretan izan dute. Andoni Sarriegi Beasaingo Udaleko Euskara-zerbitzuburuak egin du bilketa eta itzulpen lana. Kontsultak Uzeirekin egin dira. "Kan-

potik hartutako hitz asko daude, askotan zer diren ere ez dakizkigunak. Prestatzeko moduari dagokionean adibidez: refrito, sofrito, patata panaderak... askotan ez dakigu zer diren. Saiakera handia egin du itzultzaileak zer den jakinda, euskaldunok ulertzeko moduan nola esango genukeen jarritz", adierazi digu Ane Barandiaran Udalen Euskaltegi irakasleak.

Berriak egingo zaizkigun hitzak ere sartu dituzte, ikas-

"Herritarren esku dago euskarazko kartak eskatu eta erabiltzea"

Euskarazko kartak dituzten Beasaingo jatetxeak

Abdon
Andre Mari
Arrano
Arrizar bodegoia
Artzai-Enea
Atsegin
Barandiaran
Bideluze
Egoki
Haizea
Kattalin
Loinatz
Ongi-Etorri
Rubiorena
Urbietta
Urkiola

teni joan gaitezen. Gurutze Sukia Udalen Euskaltegi irakaslearen arabera, "beste hitz batzuk sartzen joan diren bezala, sukaldaritzakoak ere sartzen joan daitezela. Beti ezin gara alkatxofak esaten aritu, orburu hitza hor daukagunean. Herritarrei sartu egin behar zaizkio hitz horiek".

LOINATZ


Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZKO TRATAMENDUA**

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behe ez. - BEASAIN

ez edanak'

jatetxeetan kartak euskaraz

Benetako euskal sukaldaritza

Euskal sukaldaritzaren ospea mundu osoan hedatua dago, sukaldariak ere punta-puntan dabilta. Beasaindarren esanetan, "altxor handia dauka, bertakoa delako. Sukaldariak hemengo produktuekin egindako sukaldaritza goraiatzen dute. Bitartean karta guztiak erdaraz ditugu. Euskal sukaldaritza baldin bada, derrigorrez hizkuntzak bere lekua behar du".



Herritarren partehartzea

Ekimen hone aurrean Be-

saingo jatetxe eta tabernen erantzuna, gehienez behintzat, ona izan omen da.

"Orain ikusi egin beharko da karta horiek erabiltzen diren ala ez. Herritarren esku

dago euskarazko kartak eskatu eta erabiltzea. Herritarrek ematen dien erabilera-aren arabera izango da erantzuna hobea ala txarragoa", gaineratu dute.

Inprentekin harremanetan

Beasaingo inprentekin harremanetan jarri nahi dute, be-
raiek baitira kartak diseina-
tzen dituztenak. "Kartak in-
prentek egiten dituzte eta
euskara irizpideak zehaztu
nahi ditugu. Irekita gaude la-
guntzeko. Goierriko jatetxe-
ek ere jakin dezatela Beasai-
nen lanean ari garela".

BEASAINGO IKASTOLA

- ✖ Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHrako aukera Beasainen ari den bakarra.
- ✖ Europako Kalitate Ereduen (EFQM) arabera kudeatua.
- ✖ Eleanitza Haur Hezkuntzaz geroztik.
- ✖ Idazketa, logika eta arte lanketa goiztiarra.
- ✖ Adimen emozionalen urratsetan pentsatutako proiektuarekin.

Urbialde enparantza z/g
(MAPFRE gainean)

☎ 943 889 617 / 943 885 312 ☎
E.mail:beasain@ikastola.net

Zerbitzuak hezkuntza-proiektuan txertatuak

- ✖ Garraioa Beasain eta Goierriko herrietatik, doan.
- ✖ Haurtzaindegi zerbitzua urte osoan (ikastola oporretan denean ere bai). Tarteka ere etortzeko aukera.
- ✖ Jangela, ikasle eta gurasoentzat (tarteka ere etortzeko aukera).
- ✖ Ikastaroak guraso eta ikasleentzat (informatika, ingelesa...), oso merke.
- ✖ Guraso-eskola, doan.
- ✖ Irakasleek bideratutako Estudio-Gela, egunero, doan.
- ✖ Testu-liburuak doan.



BEASAINGO IKASTOLA
da betiko eta denon ikastola.
Ikastolen Elkarte eta Partaideko proiektuaren
babesean Beasainen ari den bakarra



Belar-bolen plastikoak biltzeko zerbitzua

Apirilerarte hilean behin bilduko da

Urtarrilean jarri zuen martxan Goimenek belar-bolen plastikoak biltzeko zerbitzu berria. Aurretik Donostialdean, Tolosaldean eta Urola kostaldean egin zen aproba eta emaitza baikorrak ikusita herrialde osora zabaltzea erabaki zen. Zerbitzua gaur egungo baserriaren beharrei erantzuteko asmoz sortu da. Izan ere, ez dira hainbeste urte (10 inguru) belarra gordetzeko silo-bolak egiten hasi zirela eta orain non-nahi ikusten ditugu. Nola-nahi plastikoaren erabilpena ere baserrietara iritsi da eta hiritarrentzat birziklapenerako edukinontziak ipini diren bezala, baserritarrei ere antzeko zerbitzua eskaini nahi izan zaie. Dena den, kasu honetan, bakarrik, belar-bolen plastikoak jasoko da, ez bestelakorik.



Apirilera bitartean, hilean behin bilduko da, hileko hirugarren asteartetan, herri guztietan zehaztuta dauden lekuetan (ikus koadroa). Belar-bolen kontsumoa batik bat udazken-negu aldera izaten denez eta udaberri aldera asko jaisten denez, bilketako tarte handitu egingo da ziu-rrerik gero.

Herrika finkatu dira biltokiak, ia 50 puntu. Horretarako herriaren azalera, baserrien kokapena eta ganadu kopurua hartu dira kontuan. Kontsumo handiena dagoenetik gertu jartzen saiatu dira Goimenekoak.

3.600 kilo plastiko

Urtarrilean egin zen lehenengo bilketa eta 3.600 kilo plastiko bildu ziren. Goimeneko Joxe Manuel Zubizarreta teknikaria gustora azaldu da emaitzarekin eta aurrera begira kopuru hori handitzea espero du.

Zabor-poltsak eta ur-hodiak

Plastikoa kamioiean bildu eta bolumena jaisten zaio lehenengo, prentsatan. Legaz-

- Lekuz leku**
- Bilketa egunak:** Otsailak 15, martxoak 21 eta apirilak 18. Plastikoa bezperan ateratu behar dira bilketa guneetara. Gune horiek herri bakoitzeko udalek barandilaz inguratuko dute.
- ✓ **Altzagan:** Abali auzorako bidegurutzean.
 - ✓ **Araman:** Ibarezko bidegurutzean.
 - ✓ **Ataunen:** San Martinen mediku etxe atzean; Lauztierrekan, Arratiñe bidegurutzean; Urkillaga gainean; Ergoiena auzoan; eta Arratean, Agerrera bidegurutzean.
 - ✓ **Beasainen:** Garinen, Etxeberrieta baserriaren bidegurutzean; Arriaranen Iturritza bidegurutzean; Ugartemendi auzo sarreran; eta Beasainmendi, hilerri bidegurutzean.
 - ✓ **Ezkio-Itsason:** Uribar aldera hartzeko bidegurutze parean, errepeide zahar alde-

an.

- ✓ **Gabirian:** Korta jatetxe inguruan; Kortzu Azpikoan, autobus geltokian; eta Etxeberringo zubian.
- ✓ **Gaintzan:** Mendizabal baserri ondoan; eta Agerre bidean, plazuelan.
- ✓ **Idiazabalen:** Olazagibel baserrian; Benta Txiki inguruan; Olariaga baserrian; Katea auzoan; Urrutikoetxe baserrian; Gurutzeta baserri inguruan; eta Korta baserrian.
- ✓ **Itsasondon:** Zelatxo aparkalekuan.
- ✓ **Lazkaon:** Lazkaomendi auzoan, Iztueta bidegurutze aldamenean.
- ✓ **Légorretan:** Esnaola auzorako sarreran, edukinontzi ondoan; Légorreta Zahar aldean, bidegurutzean, edukinontzi ondoan.
- ✓ **Mutiloan:** Herri irteeran, minako bidea hartuz.
- ✓ **Olaberrian:** Ertzile inguruan, Errekalde auzoan;

Agerre baserri inguruan eta Iurre aldean, Bengoetxe sarreran.

- ✓ **Ordizian:** Arramendi baserrian.
- ✓ **Seguran:** Laiotz aldean, Iturriberri inguruan; Lilikun, Armaola ondoan; Kortaberri auzo sarreran; Madalena aldean, telefonika ondoan.
- ✓ **Zaldibian:** Saturdin, ermita inguruan; Olakosain, Biosola bidegurutzean; Arkakan, Aierdira hartzeko bidegurutzean; eta Gaintza aldera hartzeko bidegurutzean.
- ✓ **Zegaman:** Apeadero bidegurutzean; eta Kaleko bailadan, Zupiaur baserri ondoan.
- ✓ **Zerainen:** Zabalegiko kanpan; eta Barbari auzoan, Basozabal bide barrenean, Oporleku ondoan.

Azalpen gehiagorako deitu Goimen elkartera: 943-161244 telefonora.

piko Remaplast enpresara eramaten dute ondoren. Tratamendu berezi baten ondoren (garbitu, txikitu, urtu eta

gogortu), plastikoa lentejen neurriko pilulatan ateratzen dute. Pilula hauek plastikoa manipulatzeko duten enpresa

batera eraman eta zabor poltsak eta erregadioko ur hodiak egiteko plastikoa ateratzen dute.

Amnistiaren alde baraualdian

Euskal Herritar guztion parte hartzea garantizatzeko asmoz eta kanpoko esku hartzerik izan ez dadin amnistia eskatuz baraualdia hasi zuten hainbat herritarrek urtarrilaren 24an. Egunero 2 pertsona daude, Kutxako eraikin zaharrean, baraurik eta txanda-

ka apirilaren 1a bitartean. *"Badelako garaia era demokratiko batean herriak hitza har dezan eta hitza denok dugula, bai bertan gaudenok eta baita munduan zehar sakabanaturik dauden hainbat eta hainbat euskal herritarrek. Erabakia bertan har-*



tzeko eta ez kanpoan, gurekin kontatu gabe. Beraz, amnistia orain". Hori guztia bermatu dadin hainbat eki-

men eginak dira jadanik herrian eta txandakako baraualdi hau beste horietako bat da.

Enbido eta hordago

Argi Berri Elkarteko XXIII. Mus txapelketa Azkarra irabazten duen bikotearentzat zain egongo dira 150.000 pta. Hain zuzen ere otsailaren 12an, larunbata, jokatu-ko da txapelketa aipatu Elkartean eta sariak behintzat enbido eta hordago batzuk jotzeko tentazioa sortzen dutela ezin ukatu. Bikote txapeldunak kopuru hori eskuratuko duen bitartean bigarrenak 75.000 pta. eramango ditu, hirugarrenak 40.000 pta. eta laugarrenak 20.000 pta. 8 lehenengoeak jasoko dituzte sariak eta baita herriko lehen bikoteak ere.

Eta hori gutxi balitz, sari berezi bat ere ipini dute aurretik Argi Berriko antolatzaileek. Hain zuzen ere hiru aldiz txapelketa irabazten duen bikoteak Kubarako bidaia zoragarria eskuratuko du. Sarri Pub-ak oparituta-



Jose Ramon Urbizu eta Jose Miguel Agirre zegamarrak iaizko txapeldunak txapelak, trofeoak eta dirua jasotzerako garaian.

koa izango da berau eta aipatu orain arte irabazleak izan diren bikoteak ere kontutan hartuko direla sari hau ematerako garaian.

Antolatzaileek, urtero bezala, 100 bikote inguru hurbilduko direlakoan dabilta. Goierriko muslariek gain oihartzun handia dauka txapelketak eta Nafarroa eta Gipuzkoako beste herri batzuetatik ere jende dexente etorriko delakoan daude.

Izenak aipatu eguneko arratsaldeko 4,15etarako emanak izan beharko dute. Partidak Bustuntza auzoan dagoen Argi Berri Elkartean izango dira. Izena ematera-koan 4.000 pta. jarri beharko du bikote bakoitzak eta partidak lau erregetara jokatu-ko dira. Aipatu bezala mus txapelketa azkarra izango da, hau da, galduz gero kalera.

Rugbykoak Eskoziara

Ordizia Rugby Taldeko nagusienak Eskoziara joateko asmotan dabilta lagunarteko triangular bat jokatzera. Aspaldidanik zebiltzan honelako bat egin behar zela esaten baina orain arte ezer berezirik antolatu gabe zeuden. Martxoaren 29tik apirilaren 3ra bitartean izango dira Eskozian. Lehen taldeko jokalariek gain hor izango dira entrenatzaileak eta Zuzendaritzako hainbat partaide ere.

Martxoaren 30ean Stirling-en jokatu dute neurketa bat, apirilaren 1ean beste bat Falkirk-en eta hurrengo egunean 6 nazioetako partida bat ikusiko dute, Eskozia eta Ingalaterrak elkarren artean jokatu dute hain zuzen. Gauzak ondo joanez gero, hortik bueltatzerakoan igoera faseari ekin beharko dio Rugby taldeak. Ondo etorriko zaie, beraz, igoera fase hori modu onez gauzatzeko.

Aitor Calvillo

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



Bielorrusiako haurrak hartzeko familiak behar dira

Idiazabalgo Udalak Gizarte Ongizate zerbitzuen bidez, aurtengo udan Idiazabalen Bielorrusiako haurrak hila-bete eta erdiz etxean hartzeko kanpaina jarri du martxan. Ekimena, Aguraingo "Gizaki" Gobernu Kanpoko Erakundeak (ONG) antolatu du. Talde horri esker, Arabako lautadan zazpi urte dar-matzate herrialde horretako haurrak beraien etxeetan hartzen. Aurreko bi urteetan, Araban egiten zuten egonaldia aprobetxatuz Idiazabala etorri izan dira egun pasa. Horietako bisita batean sortu zen ekimen hori Idiazabalen abian jartzeko ideia, eta orain horretan ari dira.

Aguraingo ordezkariak Idiazabalgo Kultur Etxean eman zuten ekimenaren eta beraien esperientziaren berri. Bielorrusiako errepublikak, Ukrainiarekin muga egiten du. Bigarren honetan dago Txernobilgo zentral nuklearra. Bertan orain urte batzuk izandako ezbeharrak, Bielorrusia guztia erradioaktibitatez kutsatuta utzi zuen. Istripua gertatu zenetik denbora asko pasatu den arren, inguruak kutsatuta jarraitzen du, elikagaiak eta ura kutsatuta daude, horrenbestez ia ezinezkoa da kutsadura saihestea.

Egoera horrek bertako neska-mutikoengan eragina izan du. Batzuk gaixorik daude, beste askok bizimodu

normala egiten du, hala ere hemendik urte batzura osasun arazoak izateko aukera gehiago dute. Bigarren multzo honetako haurrak izaten dira uda aprobetxatuz hilabete eta erdiz kanpora joaten direnak. Helburua argia da, denbora horretan bizimodu osasuntsuagoa egitea, etxera bueltan neguari errazago aurre egin ahal izateko.

7 eta 18 urte bitarteko haurrak izaten dira. Aguraingo taldeko kideen esanetan hemengo bizimodura ongi moldatzen dira. Askorentzat arazo izan litekeena, hizkuntzarena alegia, berehala gainditzen dute. Ekainaren erdialdean etortzen dira haurrak eta uztailaren bukaeran alde egiten dute. Hilabete eta erdi horretan Bielorrusiatik etorritako zaintzaileak ere izaten dira haurrak dauden herrietan. Errusieraz eta gaztelaz, bietara moldatzen dira zaintzaile horiek, arazoren bat izanez gero hari aurre egin ahal izateko.

Haur horiek ekainean etxean hartu ahal izateko, prestaketa lanak hilabete honetan hasiko dira. Aguraingo ONGak egiten ditu beharrezkoak diren paper eta gestio guztiak. Familiak konprometzu bakararra hartu eta sinatu behar du: sekula ez duela etxean hartutako haurra adoptatzeko ahaleginik egingo. Horretarako beste bide batzuk baitaude. Etxean haur

Bukatu dira Sanblasak

Igandean bukatu ziren aurtengo Sanblas jaiak. Festa batzordeak ez du oraindik balantzerik egin hala ere asteburuan herrian bildutako jendetzak eta bestelako ekitaldietan juntatuko herritar kopurua dira festak ondo joan direnaren seinale. Behin beharko eta plazan jarritako karpak ez du euriari aurre egiten lan handirik izan.



Kroseko emaitzak

Hauek dira urtarilaren 30ean jokatu zen kroseko hainbat probetan izan ziren irabazleak:

Neska kadeteak: Amaia Arbilaga (Tolosa). **Mutil kadeteak:** Joseba Gil (Tolosa). **Emakume helduak:** Alaitz Etxeberria (Azpeitia). **Gizon helduak:** Richard Fernandez (Oñati). **Emakumezko beteranoak:** Arantxa Aldalur (Azpeitia). **Gizonezko beteranoak:** Diego Campos (Donostia)

Herriarrak: **Neska benjaminak:** Oihane Urteaga; **Mutil benjaminak:** Ioritz Imaz; **Neska alebinak:** Garazi Dorronsoro; **Mutil alebinak:** Oier Irizar; **Neska infantilak:** Naroa Unanue; **Mutil infantilak:** Jon Urteaga; **Neska kadeteak:** Ioana Prados; **Mutil kadeteak:** Imanol García; **Emakumezko helduak:** Amaia Eguren; **Gizon helduak:** Mikel Garmendia; **Gizonezko beteranoak:** Lake Oiarbide.

bat hartzeagatik ordaindu beharreko diru kopurua, urtero ezberdina izaten da. Familiak, haurrak autobusez egingako bidaia ordaintzen du. ONGa gainera erakundeetatik ahalik eta laguntza gehien jasotzen saiatzen da. Lehen-dabiziko aldiz haurra hartzen duenari ez zaio dirurik kobratzen.

Idiazabalen etxeetan haur horiek hartu ahal izateko gutxienez 10 familiren beharra ikusten dute Aguraingo

ONGkoek. Hortik beherako haur kopurua ekartzeak ez du merezi paper asko eta buelta asko egin beharra dagoelako. Herrian dagoeneko haurrak hartzeko prest dagoen jendea badago. Izena emateko epea datorren astelehenean bukatuko da. Interesa duenak, edota informazio gehiago nahi izanez gero Josune Salegi Udaletxeko gizarte laguntzailearengana jo dezake.

Xabier Urteaga

Mikel Gaztañaga pistako Euskadiko txapeldun afizionatu mailan

Mikel Gaztañaga 20 urteko itsasondotarra pistako Euskadiko txapelduna da pasa den hilabetean Donostiako Belodromoan pistako probetan puntuazio gorenena lortu ostean. Mikel Caja Rural talde nafarreko txirrindularia da eta aurtengo hau da afizionatu mailan aipatu taldearen elastikoa defendatzen duen hirugarren denboraldia.

Mikel Gaztañaga itsasondorak aurreko urtean lortu zuen garaipenari eutsi dio bigarren urtez jarraian pistako Euskadiko Txapeldunaren garaikurra eskuratu ondoren. Txapelketa berean Euskadiko Txapeldun orde geratu da Amerikanako proban Sergio Martinekin batera.

20 urteko itsasondorak zazpi urte zituela hasi zen benjamin mailan lehenengo pedalkadak ematen eta gerotik, urtero hutsik egin gabe, txirrindu munduan jarraitu du buru-belarri, honenbestez, hau da bere 13. denboraldia. Gainera, oraindik urte batzuetarako "kuerda" duela

dio Itsasondoko txirrindulariak, beraz, indarrean ikusten du bere burua beste txirrindulariekin lehian jarraitzeko.

Mikelek bere lehen urratsak errepidean eman bazituen ere, beranduago pistan lehenengo saiakerak egin zituen, pistako zailtasunetara ohitu eta txapelketak irabaziz. "Orain hiru bat urte hasi ginen Zugaitz eta biok negu partean pista egiten. Denboraldia urrian amaitu eta martxo arte geldirik ez egote rren, askotan eguraldia zela eta. Beste alde batetik, negu partean pisuan mantentzeko, kilo asko ez hartzeko", argi digu berak.

Pistan txirrindu gainean igarotako orduak beren fruitua eman dute Euskadiko Txapelketan pare bat garaipen lortuz. Espainiako txapelketan parte hartuko ote duen oraindik erabakitzeke dauka, "ekaina aldera direnez, errepideko denboraldiak aginduko du nola nabilen, joateko aukerarik dudana edo ez", dio Mikelek.



Pistako bere ametsak "Amerikanako proba ondo egiten ikastea eta igaro berri diren Euskadiko sei orduetan parte hartzea dira", aitortu du itsasondorak.

Baina, pistan bere helburuak zehaztuak dituen arren, bere xede nagusia errepidea da, pistatik profesional mailan bizitzeko aukera eskasa baita. Txirrindulari gazte honen ustez, "zaila dago, Euskadi mailan ez baitago tradi-

ziorik. Gainera, estatu mailako txapelketetan kanpotarrak gu baino landuago eta eskarmentu handiagoa dutela ikusten da".

Orain arte bere entrenamenduak pistara mugatu baditu ere, laster hasi beharko du errepiderako prestatzen martxoan hasten baita denboraldi berria. Errepideari ere ordu asko eskaintzen dizkiola aitortu digu eta, beraz, bere nahia "hainbeste entrenatu ondoren lehengo urtean baino hobeto ibiltzea da. Iaz garaipen bat lortu nuen Santanderren eta aurtun zorte pixka batekin ea garaipen bat edo gehiago lortzen ditudan", dio Caja Ruraleko txirrindulariak.

Indarra eta gogoia behintzat ez zaio falta talde nafarreko esprinterrari, beraz, zorte pixka batekin eta bide horretatik jarraituz urrun iristeko aukera izango du.

Nagore Etxeberria

Baso-Txulo Elkartearen urteko batzarra

Baso-Txulo Elkartek urteko batzarra ospatuko du otsailaren 12an. Batzarrari arratsaldeko 6,30etan emango zaio hasiera eta ondorengo aztergai zerrenda izango du:

- Aurreko urteko batzarreko aktaren irakurketa eta onarpena.

- Bazkide berrien onarpena.
- Diru kontuen azalpena.
- Zuzendaritza Batzordeko kide batzuen berritzea.
- Estatutuen begirada eta aldaketa hala onartuz gero.
- Galde erantzunak.

Traste zaharren bilketa

Sasieta Mankomunitateak eskaintzen duen altzari, tresna elektriko eta baliorik gabeko traste zaharren bilketa zerbitzua hil bakoitzeko lehenengo eta hirugarren ostialetan aurrera eramaten da.

Zerbitzu hori erabili nahi dutenek aipatu egunak baino lehen 943 161 590 telefonora deitu behar duzue tresnak zein tokietan utzi behar diren adierazteko.

Aitziber Murua

Oporrak aukeratuz

Udal liburutegian informazio ugari dago oporren inguruan. Intur, Valladoliden egiten den turismo azoka da. Azoka hau azaroaren bukaera aldera edo abenduaren hasiera aldera egin ohi da. Aurtengoan udal ordezkari bat bertan izan zen eta han banatu ziren foileto ugari ekarri zituen.

Foileto hauek Espainian bertan turismoa egiteko dauden aukeren berri ematen dute eta Udal liburutegian jarri dira txoko batean edonork kontsulta ditzan. Beraz aurtengo oporretara nora joan ez bada-kizu makina bat aukeren berri liburutegian duzu.



Olentzero saria

Pricak antolatutako Olentzeroen lehiaketan, aurtengoan Aitxuri Herri-eskola-koa izan da saritua, 8 eta 12 urte bitarteko sailean. Kopa eta eskolako beharretarako diru-saria jasotzeko aukera izan du eskolak.



reera, Eneritz Arrondo, Aritz Aramendi, Iker Otaegi eta Xabier Azurmendi ikasle ohiei.

Eskola antzerkia

Eusko Jaurlaritzak aurten argitaratutako eskola-antzerki liburuan Aitxuri Herri-eskolako ikasleek asmatutako antzezlanak argitaratu da. Obra honen izena 'Mireni laguntzen' da, OHoko 7. mailan egin zuten Nekane Arantzamendi eta Arantxa Mujika irakasleen ardurapean. Zorionak Jaione Gorrotxategi, Amaia Aizpeolea, Amaia Ormazabal, Jaione La-

Negutegia Aitxuri Herri- eskolako ikasleentzat

Negutegi baten premia ikusten zen eskolan ikasleek baratzako teknikak ikas zituzten, alde batetik negutegiak berak dituen abantailak eta bestetik hemengo eguraldi narratza kontuan hartuta, Guraso Elkarteak berau erostea erabaki zuen. Guzti honetarako Aitxuri Herri-eskolak ere Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu zion proiektu hau aurrera eramateko asmoz. Bertan arituko diren adituak, Laure Calleja eta Maria Luisa Marin dira, udaberri oparoa eta uzta hobe opa diegu beraz guraso eta irakasleek ere.

Santa Ageda

Urtero bezala Santa Ageda bezperan Aitxuriko ikasle guztiak atera ziren kalez kale abestera, ohitura zaharra mantenduz.

Matrikula epea zabalik Aitxurin

Otsailaren 7tik 18ra bitartean izango da epea Aitxuri Herri-
eskolaren matrikulatzeko. 00-01 ikasturterako 7 haur daude jaiota: Uxue Arrizabalaga, Eukene Olaziregi, Lander Mendizabal, Ainhoa, Joseba eta Andoni Saez de Maturana (hirukiak) eta Sara Irastorza.

Edurne Albizu

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33

BEASAIN



SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAO

☎ 943 88 08 00 / 943 16 17 36 Faxe: 943 88 18 16 E-mail: lazkao@ikastola.net

MATRIKULA OTSAILAREN 7tik 18ra ZABALIK

- ⇒ 0 eta 18 urte bitarteko heziketa integrala
- ⇒ Eleanitza (euskara, gaztelera, ingelesa, frantsesa)
- ⇒ Proiektu pedagogiko propioak
- ⇒ Bailerako herrietatik garraioa

BEASAIN ALDEKO HEZKUNTZA PUBLIKOA



2 URTETIK - 12 URTERA

Mariarats, 1-3 · 20200 BEASAIN

Tfnoa.: 943 88 00 25 · Faxe: 943 88 49 29



USKAL KULTURAN ERROTUA

Gaur egungo eta etorkizuneko gizarteari
egokitutako erredua eskeintzen dugu



URASOAK GUREKIN BATERA
LANEAN

PROIEKTU BERRITZAILEA



HAURTZAINDEGIA



JANGELA

GARRAIOA



IRUGARREN HIZKUNTZA
TXERTATU DUTEN ESKOLETAN
AINTZINDARI

Ohitura zaharrak bizirik

Jende asko joan zen San Blas egunez mezetara ohitura den bezala janariak bedekatzera. Era berean, eta urte batzuetako etenaldiaren ondoren, iaz berreskuraturako ohitura mantenduz, Santa Ageda bezperan eta egunean ere kopla zaharrak entzuteko aukera izan genuen. Ataungo Herri Batasunak deiturik, bezperan talde bat ibili zen San Martinen eta beste bat Ergonen. Otsailaren 5ean berri, Santa Ageda eguna, batzuk San Gregorion aritu ziren koplata eta beste talde bat Aian. Esan behar aurtengoan eskolan ere bertako irakasle eta ikasleek ere beren ikutua eman nahian, Santa Ageda bezperan koplak abestu zituztela eskola atarian. Goraipagarria da beraz, Euskal Herrian eta gure herrian betidanik hain sustraiturik egon den ohitura hau berreskuratzeko egin den lana eta esfortzua, eta bereziki Santa Ageda kopla zaharrak berreskuratzen egindakoa. Ohitura hauek, finean, gure kulturaren bereizgarri eta ondare bait dira.

Atxuripeako pinu landaketa

Atxuripea Zaldibiako lurretan dagoen Ataungo lur eremu bat da. Bertan 24.000 in-tsinis pinua landatzeko asmoa dago, baina momentuz

langile koadrila bat garbiketa lanetan ari da. Landaketa honek hamabiren bat hektareatako lur zatia betekoa du eta aurrekontua (eskulana eta materiala barne) 5.400.000 pezetakoa da. Landaketaz Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentua arduratuko da.

Talo jana eskolan

Urteroko usadioari jarraituz, hasiak dira gurasoak aurtengo talo jana antolatzen. Aurtengoan, otsailaren 26ean, iluntzeko 8etan egingo da Joxemiel Barandiaran eskolan. Ekintza honekin lortutako dirua, ikasturte bukaerako irteerarako erabiltzen da. Joateko asmorik izanez gero, txartelak eskolan bertan dau-de salgai eta erosteko azken eguna otsailaren 18a izango da. Txartelen salneurriak berri, honakoak:

1600 pezeta heduentzat; 1200 pezeta bakarrik datozen 16 urtez beherakoentzat eta 700 pezeta gurasoekin datozen 12 urtez azpiko haurrentzat.

Talo goxoez gain, herriko trikitilari eta bertsolari gazteak ere han izango omen dira.

Matrikulatzeko epea ireki da

Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxean izena emateko

Irakurzaletasuna gorantz

Udal liburutegiak aurtun beteko du bere hamargarren urteurrena.

7.305 liburu osatzen dute egun liburutegia. Liburuok lortzeko hiru iturri ditu liburutegiak: Eusko Jaurlaritza eta horrez gain, sail honek bidaltzen duen "fondo bibliografico"; udalak liburutegiarentzat aurrekontuetan bideratzen duen dirua eta bestetik Foru Aldundi, Kutxa, Udal desberdinek argitaratzen dituzten liburuak.

1999. urteari buruzko balantzea aurkeztu berri du liburutegiko arduradunak eta, hiru ondorio nagusi nabarmendu ditu:

- Bazkideen irakurtzeko joerak gora egin zuen iaz.
- Bazkide gehiago egoteak maileguen kopuruak igotzea ekarri zuen, batzuetan hilerio ia 64 liburu eraman zirelarik. Urte amaieran liburutegiak 380 bazkide zituen, aurreko urtean baino 42 gehiago. Azken 5 urteetan lorturiko bazkide kopururik altuena, beraz. Adinaren arabera, 14 urtetik beherakoen irakurtzeko joerak gorantz egin duen bitartean, 14-18 bitartekoak gazteenak, azken urteetan beherantz egin du. Bestalde, mantendu egin da 18 urtetik gorako helduen irakurtzeko joera. Gainera, gehien irakurritako liburuak, iaz ere, haur literaturakoak izan ziren, baina orokorrean haur zein helduen irakurtzeko joera gero eta haundia da balantze honen arabera. Bestalde, nabarmengarria da 1999.eko lehenengo sehilabetearan eta bigarrenaren arteko aldea. Ekainerarte 273 liburu mailegatu ziren, baina uztailetik aurrera kopuru hori ia bikoiztu egin zen. Arrazoia liburutegian leku aldaketak bazkideengan izan duen eragina. Hau izanik bigarren ondorio nagusia.

● Aipatzen den hirugarren ondorioa informatizazioari dagokiona da. Informatizazioak datu zehatzagoak eta erre-lagoak emango baititu, baina oraindik luze joango omen da.

epea otsailaren 7an ireki zen eta otsailaren 18rarte egongo da irekita.

Labur-labur

Joan den astean hil zen Anttoni Lasa. Doluminak sendiari.

Agurtzane Bikuña

LEAB
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Xabier Berasategi Euskadiko pala txapeldun



*Xabier Berasategi
eta Rikardo
Goiburu
garaileen txapel
eta dominekin.*

Xabier Berasategi, 19 urteko pelotaria, afizionatuen bigarren mailako Euskadiko txapeldun izan da paleta larruz. Rikardo Goiburu ordiziarra izan du bikote eta biak Ordiziako taldekoak dira. Aurrelaria da Xabier eta berak dionez bikotekideak esperientzia handia izateak lagundu dioa txapela irabazten.

Zortzina talde edo klubeko bi talde izan dira lehiaketan. Taldeko lehenengo biak pasatzen ziren finalerdietara.

Altzakoen kontra jokatu zuten finala. *"Talde berean jokatu genuen eta aurretik ez genien partidurik irabazi. Finala ordea, bai"*, dio Xabierrek.

Sari honi esker klubak bikote bat lehenengo mailara igotzeko eskubidea izango du.

Orain dela 4 urte hasi zen pelotan serio, baina lehiaketarik ez zutenez izaten, utzi egin zuen. Jende gutxi ere bazeuden. Lehengo urtean

berriz ere entrenatzen hasi eta lehiatzen hasi zen. Gustoa hartu eta aurrera jarraitu du. *"Gora igotzeko? Oso urruti dago. Hortik bizitzeko profesionala izan behar da. Eskuzkoan profesional asko daude eta enpresa berriak sortzen diren neurrian gehiago. Palan 20 bat izango dira profesionalak eta oso zaila da hor sartzea. Eskuzko pilotan diru asko dago eta jende gehiago mugitzen da baina Olaberrian beti palan ibili gara"*, azaldu digu.

Ikusteko pala gehiago gustatzen zaio Xabierri, *"telebistaz agian eskuzkoa politagoa da baina pilotalekuan bertan, ikusteko palak beste bizitasun bat dauka. Pala teknikoagoa da, azkarragoa eta politagoa"*.

Aurrera begira ere jokatzen jarraitzeko asmoa du, *"gustoa hartu diot eta berdin zait gora igo ala ez. Lehiatzen gustora nabil. Hobby bezala daukat"*.

Mus txapelketa Aitz-Buru elkarte

Iaz hasitako bideari jarraituz, aurtengoan ere Aitz-Buru elkarteak mus txapelketa antolatu du hil honen 26rako. Mus txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra, bikote bakoitzeko partaide bat bazkidea edota herritarra izatea da. Arratsaldeko 4etan emango zaio hasiera mus saioari. Ondorenean, nahi dutenentzat afaria ere egongo da baina horretarako hil honen 19rako izena ematea komeni da. Animo.

Ostatuko denda

Urtebete baino gehixeago izango da, Idiarte etxean zegoen denda halabeharrez, itxi behar izan zenetik. Orduetik herrian ez zegoen dendarik. Baina hemendik aurrera Ostaturun izango dugu denda. Herriarentzat zerbitzu bat gehiago eta oso ondo datorrena gainera, ezer behar genuenean ez baikenuen herrian beste nora joanik.



Santa Ageda bezperako kanta saioa

Santa Ageda bezperan, ohiturari jarraituz herritar talde bat ibili zen etxez etxe, bertso kantari. Talde horren izenean eskerrikerik beroenak herritar guztioi izandako harreragatik.

Hileta

Otsailaren 2an, Kandelaria egunean joan zitzaigun gure artetik Urteaga baserriko Karmen Etxeberria, 89 urterekin. Jatorriz oiartzuarra bazen ere urte asko zeramatzan

dagoeneko Mutiloan. Bere alde egin ziren hileta elizkizunean jendez gainezka egon zen Mikel Goiangeruaren eliza.

Iñaki Ugalde

Otsail bete-betea

Zaldibiako Udaleko Kultura batzordeak otsailerako egitarau bete antolatu berri du. Oraingoan diapositiba emanaldi, argazki erakusketa eta kontzertu batekin animatu nahi ditu herritarrek parte hartzea. Batetik, eta Kutxaren bitartez antolatutako jardueren barnean, Joxe Ramon Agirre 'Marron' en 'Bidaia nire errailetara: Nepal' argazki erakusketa egongo da ikusgai otsailaren 14tik 21era Kultur Etxean. Ildo be-

retik, otsailaren 16an, izen eta egile beraren diapositiba emanaldia izango da arratsaldeko 7:30etan Kultur Etxean.

Bestalde, eta otsailaren 25eko gau partea alaitu asmoz, kontzertu bitxi bat izango da antzokian. Emanaldia 10:15etan hasiko da eta bertan, Donato Goyenexhe eta Edurne Iturbek osatutako trikitixa eta perkusio bikotearen doinu eta erritmoez gozatzeko aukera izango da.



Futbol emaitzak

Areto futbolaren barnean hauek izan dira pasa den asteburuan lortutako emaitzak:

Mutilak: Jubenil maila: Lauburu-Zaldibi (7-2), Bigarren maila "A": Opel Arregi-Zaldibi (0-0). **Neskak:** Zaldibi-Larra-mendi (4-1).



Gestoretako saskia

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurtien ere, Zaldibiako Amnistiaren Aldeko Batzordeak mendi ekipo baten zozketa izan du eskuragai Joxepane tabernan. Aurtengoan, eta bigarrengo zozketa baten zenbaki irabazlearen zain egon eta gero, 4311 zenbaki sariduna zuten Beasaingo Barandiaran tabernakoei (Antxusitarak) egokitu zaie saskia. Osasunarekin urratu!

Ikastaroetarako deialdia

Udaleko Kultura batzordeak, herritarren nahiaren arabera, urtean zehar burutu daitezkeen balizko ikastaroen zerrenda helarazi nahi die herritarrei. Ikastaroen artean txalaparta, gozogintza, sukaldaritza, serigrafia, argazkigintza, taila eta irratigintza agertzen dira. Ikastaro hauetan parte hartzeko interesa duenak izena eman beharko du Kultur Etxean otsailaren 17 a baino lehen. Ikastaroak osatutako talde kopuruaren arabera antolatuko dira.

Herri-kiroletako saioa

Eskola kirolaren egitarauaren barnean, bihar larunbata hilak 12, 3. eta 4. mailako haurrek herri-kiroletako

saioa izango dute goizeko 10etan Zaldibiako eskoletan. Bertan eskualde guztiko haurrek hartuko dute parte.

Formigalera irteera

Urtero bezala, Gailurrerantz Kirol Elkarteko mendi sailak Formigalera eski irteera antolatu du hil honen azken astebururako. Eskiatzera joateko asmoa duenak Kultur Etxeko 943 160338 telefonora deitu beharko du otsailaren 21 a baino lehen. Eski irteera honen kostu, bete beharreko baldintza eta gainerako xehetasunak kartel bidez zehaztuko dira.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroj Jauregi*

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 88 72 21

610 02 00 41

BEASAIN

IBAI-ONDO

Altzariak neurri

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa


Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA

943 88 05 43

Antzizar Auzoa, z/g

BEASAIN



X. Beasain idazlehiaketako sariak banatu ziren otsailaren 6an

Udaleko Euskara-batzordeak antolatutako X. Beasain Idazlan lehiaketaren sarie-matea otsailaren 6an egin zen Udaletxeko Batzar Aretoan. 5 mailatan banatu da lehiaketa eta eskualdeko ikastetxeetako 1981tik 1991era bitartean jaiotako ikasleek hartu dute parte. Ikastetxetan lehen hautaketa egin ondoren, lan asko izan dira Udaletxera iritsiak, eta 41 sarituak.

Epaimahaia osatu dutenak hauek izan dira: Migel Anjel Mintegi Larraza, Idurre Eskisabel Larrañaga, Marian Toledo Kortabarria, Gabino Murua Zumalakarregi, Jexux Aizpurua Barandiaran eta Begoña Iartza Urkiola Jaun-andreak.

Sarituak asko izan dira eta hemen, lehenengo saria jaso dutenak bakarrik aipatuko ditugu.

A mailan, 1981-83an jaiotako:

Olerkian Odei Zabaleta Imaz (Jakintza Ikastola), '□' lanarekin. 30.000 pezeta eta oroigarria jaso ditu.

Hitz lauz: Ainhoa Mujika Otegi (Jakintza Ikastola), 'Zuretzat dela imajinatu' la-

narekin. 35.000 pezeta eta oroigarria jaso ditu.

B mailan, 1984-85ean jaiotako:

Jokin Murua Lopez (Loinazpe Institutua), 'Gerrako egunkaria' lanarekin. 30.000 pezeta eta oroigarria jaso ditu.

D mailan, 1986-87an jaiotako:

Iñigo Oiarbide Diez (Alkartasuna Lizeoa), 'Orein baten begietatik' lanarekin. 25.000 pezeta eta oroigarria eman ditu.

E mailan, 1988-89an jaiotako:

Ibon Iraola Berasatei (Beasaingo Ikastola) 'Baserritarra detektibe' lanarekin. 20.000 pezeta eta oroigarria eraman ditu.

F mailan, 1990-91an jaiotako:

Naiara Ugartemendia Erauskin (Murumendi Ikastetxea) 'Jhadija basamortuko neskatxa' lanarekin. 15.000 pezeta eta oroigarria eman ditu.

Sariak, Gipuzkoa/Donostia Kutzak finantzatu ditu eta saritutako idazlan guztiak bilduko dituen liburuska bat argitaratuko du Udaleko Euskara-batzordeak.

Nekane Altuna



Musiketan 2000

Gipuzkoako hiru udalerri bat egin dute nazioarteko musikaz osatutako Musiketan programa aurrera eramateko. Andoain, Oñati eta Beasain dira Udalerrri hauek. Ekaina bitarte 9 kontzertu izango dira. Beasainen ospatuko diren hiru kontzertuei dagokienez, Wrigley Sisters, Kristina Pato eta John Re-bourn & Jacqui Mc Shee abeslariak izango dira. Lehenengo kontzertua martxoaren 9an ospatuko da, emakume langilearen egunaren inguruan, eta Jennifer eta Hazelen Wrigley ahizpen emanaldia izango da. Kontzertu hauek Usurbe Antzokian izango dira gaueko 9etan eta sarrera 1000 pezetakoa izango da. Instrumentu desberdinak, etnia eta folklore ugari eta estilo desberdinak entzuteko aukera izango da beraz.

Goiztiri AEK Euskaltegiak antolatutako ikastaroak

Otsailean zehar ikastaro desberdinak antolatu ditu Beasaingo Goiztiri AEK Euskaltegiak. 500 pezetako prezioa izango dute, eta interesatuok telefono honetara deitu beharko duzue, 943889340. Bestela, kale nagusia 53-an duten egoitzara ere hurbil zintezkete.

Lora lehorrak nola lehortu eta hauekin ondoren zer egin daitekeen erakutsiko duen ikastaroa otsailaren 24an izango da, arratsaldeko 2,30etatik 4,30etara. Interesatuok otsailaren 23a baino lehen eman behar duzue izena.

Euskal Kanta zaharrak giro ezin hobean ikasteko aukera ere izango da. Otsailaren 29an, iluntzeko 7etatik 9etara.

Sagardo egunerako autobusa

Bihar, otsailak 12 Hernanin ospatuko den sagardo egunerako autobusa antolatu du bertara joateko. Ene Bada taldea eta Aritz Ghetto eta DJ Talo Ethno Gasna Disk Jokeyekin dantzaldia egongo da. Afaria 2500 pezeta izango da eta autobusa 1000 pezeta. Izena eman nahi duzuenok Goiztiri AEK euskaltegira deitu.



Santiago bidea

Urtarrilaren 25eko Gobernu kontseiluan, Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Santiago bidea eta berarekin zerikusia duten elementuak ondasun kultural modura babestea erabaki zuen multzo monumental izendatuz. Bertan, bi bide nagusi aipatzen dira, barru aldekoa eta kosta aldekoa. 202 elementu (zubi, ermita, dorretxe, urkamendi...) eta 14 kasko historikori eragingo die dekretu honek. Barru aldeko bidean, Hernani, Tolosa, Ordizia, Agurain, Dulantzi eta Gasteizkoarekin batera, Segurakoa azaltzen da.

Bola

Urtarrilaren 30ean Hernanin jokaturako Gipuzkoako erregularitate txapelketako 3. saioa Imanol Agirrek irabazi zuen 48 birla jota. 3. jardunaldiaren ondoren Xepiño Agirre doa Igo sailkapenean (136 birla) eta 3. Imanol Agirre (132 birla).

Kirol eskolarra

● **Mendi irteera:** Kirol eskolarraren barne otsailaren 13an Legazpi-Arrola (910 m.), goizeko 8,30etan plaza-tik irtenda.

● **Saskibaloia:** Bihar, larunbata, otsailak 12, goizeko 11etan frontoi ondoan neska alebinak: Laiotz-Urdaneta A.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Preferentean:** Zestoa 5 - 1 Segura. **Jubenilak:** Beasain 0 - 1 Segura. **Kadeteak:** Union Txiki 4 - 0 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 1 - 3 Baskonia.

Asteburuan etxean: **Zapatua:** Kadeteak: Aizkorri - Almen (11:00). **Preferentea:** Segura - Pasajes (16:00).

Hirugarren mundua ezagutzen

Bi erakusketa Kultur etxean

Rwandaz erakusketa eta hitzaldiak

Jokin Izagirre herritarra, lazkaotar batzurekin batera, bi alditan izana da Rwandan hainbat lan sozial egiten. Bere iniziatibaz eta Udalarren laguntzaz, herri horren egoeraren berri eman eta Rwandako Giharan eskolatu gabeko kaleko haurrentzat ikastxokoa sortzeko dirua ere atera nahi da.

● Argazki eta eskulanen bilduma:

Bertako egunerokotasunaz 40ren bat argazki ikusgai eta salgai egongo dira. Hauekin batera, egurrezko, marfilezko eta harritzko irudiak, papirozko ontziak, malakitazko bitxiak, buztinezko ontziak, maskarak...

● **Hitzaldi-elkarriketak:** Otsailaren 25ean, 19:00etan, Kultur etxean. Gaia: Rwanda (bertako gertakizunak eta egoera). Hizlariak: Rosa Mari Zubiarraín (Rwanda urteetan erizain izana) eta Eusebio Arzelai 'Aita Zuria' (Rwanda 30 urteetan misiolari izana).

Bi erakusketak otsailaren 24tik martxoaren 5era, Kultur etxeko goiko gelan. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 17:00 - 19:30; zapatua: 18:00 - 20:00; jaia: 12:00 - 13:30 eta 18:00 - 20:00.



Jokin Izagirre Rwandako umeekin.

Martxoaren 2an, 19:00etan, Kultur etxean. Gaia: Bidezko merkataritza. Hizlaria: Iban Narbaiza (Caritaseko bidezko merkataritzaren arduraduna).

Erakusketa ibiltaria

50. urteurrena dutela eta, elizbarrutietako misioek antolatuta, Rwanda, Angola eta Ecuadorreko behartsuen bizitza agertzen da beraien istorio, ekintza, jolas eta materialen bidez. Batik bat, haur eta lehen hezkuntzako ikasleei zuzendua. Ikustaldiek ordutebe inguruko iraupena dute.

Jaia: Jubenilak: Segura - San Marcial (16:00).

Labu-labu

● **Liburutegia** informatizatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz ABSYS

programa ezartzea erabaki du Udalak, liburutegirako ordenagailua erosiz.

● Herriko elkarte guztiekin bilera burutu du Udalak aste honetan, beraien aktibitateen



Altzariak zaharberritzea

Udalak antolatutako ikastaroan 20 lagun elkartzen dira asteazkenetan 6etatik 8,30etara Txanbolinpe gainean, Lurdes Ulaziaren ardurapean. Argazkian, bakoitza bere altzaria ari da zaharberritzen.

berri jakin eta **diru-laguntzak** zehazten joateko berehala aurkeztuko diren aurrekontuetan.

● **Hiri antolamenduan al-daketak.** Foru Aldundiak kasko historikoaren esparrua zabaltzea onartu berri du, lehengoez gain zenbait eremu berri sartuz.

● **Lan eskaintza.** Partzuer-goko bajak osatzeko lan-politza eratu da. Izena emateko epea otsailaren 11 arte. Informazio gehiago Udaletxean.

● **Laiotz Herri Eskolak** eta Hartz-Lehor guraso elkarteak antolatutako **kultur astea**, martxoaren 7tik 13ra izango da aurtengoan.

● **San Joanak.** Udalak, printzipioz ekainaren 18, 23, 24 eta 25 ezarri ditu festa egunak.

Joseba Telleria

Ahari joko bikaina igande honetan



Noare eta Turbo.

Igande honetan, otsailak 13, arratsaldeko 4,30etan Noare-ren 'Turbo' ahariak Eibarko 'Katillu' ren ahari mestizoa-ren aurka jokatu beharko du Azpeitiko zezen-plazan.

Noarek inoiz izan duen aharirik onena da hau eta bere esanetan Euskal Herri osoan ez dago beste ahari bat horren aurka jokatzeko gai denik. Ahariak dituztenek hori badakite eta horregatik ez dute jokatu nahi; izan ere orain arte izan dituen apus-tuetan erraz asko uxatu baititu bere aurkariak. Baina, aharirik ezean, badira akerra-ren eta ardiaren arteko mesti-

zoak direnak eta horietako baten kontra jokatu beharko du, hain zuzen ere, igande honetan.

Apustuan milioi erdi bana jokatzeko dute eta sarrerekin biltzen den dirua bien artean banatuko dute. Noarek konfiantza handia badu ere, kezka pixka batek ere astintzen dio barrena; izan ere, mestizo horien kolpea ez da izaten aharien antzekoa, hau da, zuzen-zuzena, baizik eta goitik beherantz ematen dute kolpea eta horrek min egin diezaioke 'Turbo' ri eta jokatzeko duten diru kopurua ez da txantxetako.

Giro ederra izango da, zailtzarrik gabe, igande honetan Azpeitian, eta jakina, Turbok irabazten badu jendea pozik baino pozikago gure herrian. Hala izan dadila!

Udalak Udalbiltzan sartzea erabaki du

Gabiriako Udalak Udalbiltzan sartzea erabaki zuen aho batez udazken aldera eta azken asteotan onartu du orduan idatzitako akta. Beraz, aurrerantzean erakunde horren barruan izango gara.

Bi herritar sariturik Beasingo Literatur Lehiaketan

Beasaingo Udalak eta Kutzak urtero antolatu ohi duten Literatur Lehiaketaren sariak joan zen igandean jakinarazi ziren eta sarituen artean hortxe ditugu Jokin Murua, lehenengo saria bere adinekoen artean, eta Oroitz Maiz, aipamena bere adinekoen artean. Zorionak biei eta ea aurrerantzean ere sariak eskuratzen dizkiguten.

Gabino Murua

Santa Ageda eske arrakastatsua

Santa Ageda bezperan arratsaldeko 5etan hasita koadrilla ederra ibili zen etxez etxe, kantuz eta soinuak Santa eskean.

Ahalegin honek erantzuna ere bikaina izan zuen, izan ere 128.000 pezeta bildu ziren. Behin eta berriro zerain-darren eskuzabaltasuna nabarmen geratu da eta esker-tzekoa da.

Ohitura hau duela urte batzuk berriro zen, eta egun ho-

netan bildutako dirua betidanik behar gorrian dauden herrialdeetara bideratzen da. Santa Agedatan bildutako dirua Ginea Ekuatorialeko Akonibe herrira bidaltzen da, Udalak bere aurrekontutik honetarako ematen duenarekin batera. Iaz, ordea, Nikaraguara bidali zen, Mitch Hurakanak sortu zituen kalteak tarteko zirela egoera oso larria bizi zutelako. Aurtengoa ere bi lurralde hauetako batera zuzenduko da.

Tute txapelketa

Urtarrilaren 29an Liztormendi elkartearen jokatu zen Tute txapelketan 17 bikotek parte hartu zuten, arratsalde osoan lehian aritu ondoren Toño Castro eta Igor Ormazabal zegamar bikotea izan zen garaile eta Anttoni Zaldua eta Gema Oria bigarren geratu ziren.

Liztormendi Elkarteko bilera

Otsailak 20, igandea, goizeko 11,30etan Liztormendi Elkartearen urteroko bilera egingo da, urteko gora-beherak eta junta aldatzea izango dira bertako gaiak.

Mari Flor Mendizabal

Xixio Barandiaran Orbea mountain-bike taldeko zuzendaria: "Euskal Herrian errepideko lasterketek jaten dute dena"

Urtarrilaren 28an aurkeztu zuten Donostian Orbea mountain-bike denboraldi honetarako taldea. 7. denboraldia dute aurtengoa eta guzti haurtan Xixio Barandiaran ataundarra izan da zuzendaria.

Taldean 5 euskaldun daude: Andoni Olaberria (Ikaztegietakoa), Roberto Lezaun, Jose Luis Urdiain, Iñigo Iparagirre eta Igor Fernandez. Haurtz gain errioxar bat: Carlos Coloma; 3 frantziar: Herri-set, Perry eta Cabot; eta bi belgiar: Galle eta Trevisan.

Guztiak profesionalak dira, "baina erdiek ondo ko-bratzen dute eta beste erdiek, berriz, oso gutxi irabazten dute. Aurtengoa dugu lehen urtea talde profesional bezala, kontratu profesionalekin. Aipagarria da Orbea dela estatu mailan mountain-bike talde profesional bakarra. Bidaia nahiko juxtuak izaten dira, bi egun lehenago iritsi, proban parte hartu eta itzuli, era umilean. Europako bidai gehienak, berriz, furgonetan egiten ditugu", azaldu digu Xixiok.

Europa mailan kirol hau aurreratuago dago, batez ere Frantzia, lasterketak telebistaz ematen dituzte. "Aurrerakotu mailan adibidez, guk 50 milioikoa badugu ere badaude 600 milioikoa duten taldeak. Kirol berria da, hemen duela 8-10 urte hasi zen. Euskal Herrian errepideko lasterketek jaten dute dena, kontutan hartu behar



Babesle nagusia Orbea txirrindu etxea dute, nahiz eta beste hainbat laguntzaile ere izan.

da munduko korredore onenetakoak ditugula".

Aurtengo denboraldia

Aurtengoan iazko emaitzak hobetzea dute helburu. Munduko Txapelketa Sierra Nevada da eta hor ahal duten paperik hoberena egin nahi dute, "ea dominaren bat lortzen dugun".

Munduko kopa guztia egiten dute taldearen erdiarekin. Lehenengo lasterketa San Franciscon dute eta bigarrena Mexikon. 8 proba izaten dira guztira: 4 Europan, 2 Estatu Batuetan, 1 Kanadan eta 1 Mexikon. Espainiako Opena eta Coronas sarian ere parte hartuko dute.

Denboraldi hasieran as-tete egiten dute txirrindulari guztiek Xixioren Gabiriako etxean, elkar ezagutu eta denboraldia, egutegiak, entrenamenduak... prestatzeko.

Talde buru Roberto Lezaun nafarra dute, Coloma errioxar gaztea ere oso indartsu dator eta aurtun fitxatu duten Herri-seta frantziarra, ere oso indartsua da.

Mountain-bike lasterketa

Normalean egun bateko lasterketak izaten dira eta zir-

du. Itzuliak badira, errepidean bezala izaten da, leku batean hasi eta beste batean bukatu. "Ziklo-krosean oso antzekoa da baina proba luzeagoa izaten da, ziklo-krosean ordu betekoa izaten bada mountain-bikean bikoitza. Ziklo-krosean asistentzi puntuak egoten dira eta mountain-bikean, berriz, ez. Ezin da txirrindurik edo gurpilik aldatu eta matxuraren bat izanez gero txirrindulariak berak konpondu beharra du. Kanpotik janaria eta edaria bakarrik eman daiteke. Abentura kutsu hori mantendu nahi da kirol honetan", azaldu digu ataundarra.

Ziklo-krosean asistentzi puntuak egoten dira eta mountain-bikean, berriz, ez. Ezin da txirrindurik edo gurpilik aldatu eta matxuraren bat izanez gero txirrindulariak berak konpondu beharra du.

kuitu baten inguruan 4-6 bira artean ematen dituzte. Gutxi gora-behera 2 ordu edo 2 ordu t'erdiko iraupena izaten

Kirol gogorra da, egun bateko lasterketetan irteeratik helmugara topera joaten da 180-185 pultsazio minutuko media bat egiten dute. Entrenamendu gehiena errepidean egiten da eta astean egun bat edo bi mendian teknika lantzeko.

Euskaldunak nagusi

Euskal Herrian daude Estatu-tuko txirrindulari indartsue-nak. "Tristeia hori da, maila handiko txirrindulariak ditu-gu eta ez da proba nagusirik antolatzen, bigarren maila-koak bakarrik antolatzen di-ra. Diru asko behar baita proba bat antolatzeko eta errepideak jaten ditu hemen-go diruak. Dirua izateko ga-rrantzitsua da telebistak pro-bak ematea, eta horretarako 'krak' bat egon beharko li-tzake, bestela telebistak ez du kasorik egiten".

Goierri mailan Jokin Mu-jika ibili zen eta Atlantako olinpiadetara joatea lortu zuen, baina orain ez dabil inor. Gertukoa Andoni Ola-berria dugu, Ikaztegietakoa, aspaldian puntan dabil, Esta-tu mailan 4 onenen artean dabil. Zergatik ez ote da mendiko txirrindulari gehia-go ateratzen? "Zaletasuna ba dago, txirrinduak saltzen dira. Baina zaila da, dirurik ez dago, adibidez munduko kopan irabazleak 2 milioi irabazten ditu baina bestela gastua besterik ez dago", adierazi du Xixiok. "Adibi-dez lehen Espainiako federa-zioak ez zuen mountain-bike-rako dirurik jartzen eta orain taldeka munduko txapelketa irabazi zenetik diru pila bat jarri zuten, kamioi bat erosi..."

Estatuko selekzioan

Estatuko hautatzailea Duran-gokoa da, mekanikoa Xixio eta masailaria Rufino Murgia beasaindarra. "Euskaldunok eramaten dugu. Tristeia da



Taldeko zuzendaria

Jokin Mujikak txirrindularitza utzi zuenean Xixiok egin zion mountain-bike denboraldia egiteko proposamena. Horrela hasi ziren. Lehen urtea oso ona egin zuten txirrindulari batekin, eta piskanaka gehiagora joan dira.

Taldeko zuzendari lana ez da errepidean bezalakoa, "lan asko egiten ditut. Lehen, berriz, oraindik gehiago: hotelak aurkitu, mekaniko lana eta dena egin beharra izaten nuen. Orain txirrindulariei laguntza ematea izaten da gehiago. Be-rez oso kirol indibiduala da, baina gu taldeko estrategiak sartzen hasi gara. Ez da erraza baina emaitza onak ari da ematen".

baina Espainiko koloreak defendatu behar izaten ditu-gu. Saiatzen gara podiumera Euskadiko txapela edo zer-bait eramaten. Olinpiada behin izan da eta orduan bi euskaldun, Orbeakoak, Le-zaun eta Jokin joan ziren. Aurten ere bada olinpiada eta Lezaunek joateko lekua ziurtatua du".

Xixioren iritziz, "alda-tzen ari bada ere oraindik mountain-bikera errepidean gora iritsi ez diren txirrindu-lariak etortzen dira. Hauen-tzat irtenbide bat da. Estatu

mailan mountain-bikean puntan dabilenak 5 milioi irabaziko ditu eta errepide-an, berriz, diru hori gutxiena irabazten duenak irabaziko du. Baina zaila da, hemen txikitatik praktikatu bahar da bestela indarra izango du baina, teknika menperatu ezean, jai izango du. Ba dau-de kadete eta juvenil maila-ko taldeak eta hauei jarrai-pena egiten diegu".

LABURREAN

Mikel Gaztañaga

Itsasondoar txirrindula-riak Euskadiko puntuazio txapelketa irabazi zuen Anoetan. Informazio gehiago Itsasondoko kro-nikan.

Josune Bereziartu

Eskalatzaile bikainak Ki-rol Merituaren Domina jaso zuen asteazkenean Madrilén. Hezkuntza eta Kulturako Ministeritzak ematen du saria.

Iker Sukia

Asteburu honetan, pisu jaurtitzaile ataundarra Espainiako pista estaliko txapelketan lehiatuko da. Txapelketa hau Donos-tiako Anoeta belodromo-an izango da.

Aurreko asteburuan Espainiako promesa mai-lako txapelketa irabazi zuen Sukiak.

Martin Alustiza

Pelotari segurarra Eskuz Binakako Txapelketako final erdietarako sailkatu da Oier Zezarrarekin. As-teburu honetan taldeko lehen postua dute jokoan Unanue-Errasti bikotea-ren aurka.

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

ZINEA

'Estacion Central de Brasil'

Walter Salles
(Brasil, 1998)

Maistra edo andereño ohi batek, Dorak, sos batzuk irabazten ditu Rio de Janeiroko tren geltokian, analfabetoentzat gutunak idatziz. Jende xehari laguntza handia ematen diola jakin arren, denbora pasa hala, haien mixeriak entzuten aspertuta edo azala gogortuta, agian iruzur egiteko ohitura du, gutunaren artean askok eta askok zakkarrontzirainoko bidea baino ez baitute egiten. Egun batean Josue 9 urteko mutikoa ezagutuko du, honen aitarentzat gutuna idatzi eta amarik gabe geratzen den egun berean. Gora behera latz batzuen ondoren, Dorak umeari lagunduko dio aitarren bila Brasilgo Ipar-ekialderantz.

GOIENIZ:

Otsailak 24, 'Estación Central de Brasil', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Otsailak 13, 'Power rangers en el espacio', 17:00etan, Zineman.

Otsailak 17, 'Salvar al soldado Ryan', 20:30ean, Zineman.

Otsailak 20, 'Dr. Dolittle', 17:00etan, Zineman.

Otsailak 24, 'Shakespeare in love', 20:30ean, Zineman.

BEASAIN:

'Secuestrando a la srta Tingle'.

Ostirala 11: 22:15

Larunbata 12: 19:30 - 22:15

Igandea 13: 19:30 - 22:15

Astelehena 14: 19:30 - 22:15

ORDIZIA:

'Ana y el Rey'.

Ostirala 11: 22:15

Larunbata 12: 19:30 - 22:15

Igandea 13: 19:30 - 22:15

Astelehena 14: 19:30

'Los teleñecos en el espacio'.

Igandea 13: 16:45

antzerkia

BEASAIN:

Otsailak 11, Pep Bou taldearen 'Ambrossia', Usurbe Antzokian, gaueko 10,15etan.



Otsailak 18, Leandre taldearen '?', Usurbe Antzokian, 22:15ean.



ikusentzunekoa

ZALDIBIA:

Otsailak 16, Joxe Ramon Agirre 'Marron'-en diapositiba emanaldia: 'Bidaia nire erraietara: Nepal'. Kultu etxean, arratsaldeko 7,30etan.

musika

ZALDIBIA:

Otsailak 25, Donato Goyenexhe eta Edurne Iturberen eskutik, trikitixa eta perkusio emanaldia, Antzokian, 22:15ean.

erakusketak

BEASAIN:

Otsailaren 19ra arte, Aterpe pintura lehiaketan aukeratutako lanen erakusketa, Aterpe tabernan.

Otsailaren 13ra arte, 'Miramon: Kutxa zientzia guinea' Usurbe Antzokian.

Otsailaren 19tik 27ra arte, Karlos Irazu Muñoaren erakusketa, Usurbe Antzokian.

Otsailaren 20tik martxoaren 10era, Errenteriako Joakin Vararen argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Otsailaren 18ra arte, Patxi Epelderen pintura erakusketa, Barrenan.

ZALDIBIA:

Otsailaren 14tik 21era arte, Jose Ramon Agirre 'Marron'-en 'Bidaia nire erraietara: Nepal' argazki erakusketa, Kultur Etxean. Ordutegia: 17:00 - 19:30.

bestelakoak

BEASAIN:

Otsailak 16, Ipuin kontaketa, Kultur Etxeko liburutegian, arratsaldeko 6etan.

Otsailak 23, Ipuin kontaketa, Ezkiaga Auzo Etxean, 18:00etan.

ikastaroak

BEASAIN:

Otsailak 27, Eskalada ikastaroa, Aizkorri Mendizale Elkartek antolatuta, 8etan.

hitzaldiak

SEGURA:

Otsailak 25, Rwandaren egoerari buruzko hitzaldia, Kultur etxean, 19:00etan. Hizlariak: Rosa Mari Zubiarain erizaina eta Eusebio Arzelai mihiolario.

mendi-irteerak

Beasaingo

mendizaleak:

Otsailak 20, Brinkola-Arranoaitz-Aztiria.

URTARRILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Hau da ene ondasun guzia**
J. Sarrionaindia (Txalaparta)
- 2- **Barandiaran**
Aizpurua anaiak (Elkar)
- 3- **Bambulo 3**
Bernardo Atxaga (Erein)
- 4- **Margolana**
Igor Elortza (Alfaguara)
- 5- **Ai, ama!**
Arantxa Iturbe (Alberdania)

DISKOAK:

- 1- **Mikel Laboa**
'Gernika zuzenean 2' (Elkar)
- 2- **Su ta gar**
'Homo sapiens?' (Gor)
- 3- **Tapia eta Leturia**
'Bizkaiko kopla zaharrak' (Elkar)
- 4- **Mikel Urdangarin**
'Badira hiru aste' (Gaztelupeko hotsak)
- 5- **Betagarri**
'80/00' (Esan ozenki)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

'Lora lehorrak nola lehortu eta hauekin zer egin' ikastaroa

Beasaingo Goiztiri AEK euskaltegiak 'Lora lehorrak nola lehortu eta hauekin zer egin' ikastaroa antolatu du otsailaren 24rako. Ikastaroa 2,30etatik 4,30etara izango da. Loreak nola lehortu eta hauekin ondoren zer egin daitekeen ikasiko da. Interesatuok deitu otsailaren 23a baino lehen 943 88 93 40 telefonora. Ikastaroaren prezioa: 500 pezeta.

Euskal kantu ikastaroa

Otsailaren 29rako antolatu du Beasaingo Goiztiri AEK euskaltegiak 'Euskal kantak' ikastaroa. Iluntzeko 7etatik 9etara izango da ikastaroa eta bertan euskal kanta zaharrak ikasiko dira. Prezioa: 500 pezeta. Izena emateko telefonoa: 943 889340.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Otsailak 12-13: Cuesta

(Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain). 943 88 05 87.

Otsailak 19-20: Lurnaga

(Kale Nagusia, 4 - Ordizia) 943 88 18 28.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Auto EASO

Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO ☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

G U R E A

JANARIAK

GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILLOA

IKASTEK AKADEMIA
KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA

- ✓ Lehen eta bigarren hezkuntza
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Marrazketa teknikoak
- ✓ Larunbatetan klaseak

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Patxi Epelde pintorea: "Koadroek zirrarak sortzen dituzte, ez daude ulertzeko eginda"

Jaiotzez tolosarra, baina Ordizian bizi da aspalditik. Barrena Kultur Etxean pinturako klaseak ematen ditu, nahiz eta artea erakustarik ez dagoela uste duen. "Ikasketa eta irakaskuntza kontrajarriak daude. Zerbaitekin maiteminduarazi egin behar dugu irakasleok ikaslea. Irakasle batek sortarazi behar du artearekiko, pinturarekiko, musikarekiko zirra-ra".

Patxi Epeldek bere eras-kuketarekin joko bat planteatzen du. Koadroek eta erakusketak berak ere, ez daukate izenbururik, bisitarien lana da hori. Prestatutako foileto batean, bisitarietako artelan bakoitzari izenburua jarri beharko die, bost segun-

duren buruan sortu dien zirraren arabera. Jasotako erantzunen arabera, komunikatzea lortu duela uste du Patxi. "Pintore batentzat porrota litzateke bere lana adieraztea". Pintorearen esanetan, "koadroak ez daude ulertzeko eginda, zirrarak sortzeko baizik".

Erakusketa osoari izenburua jartzea ere eskatzen die bisitarietara. Trukean, erakusketak honen inguruan egindako katalogoa oparitzen du.

Erakusketak bi zati ditu: koadroak eta zurezko eskulturak. Guztietan ere ildo beretsua nabari da.

Triangeluak

Irudi geometrikoak asko erabiltzen ditu Ordiziakoak. Ha-



la ere, triangeluak protagonista dira. Zenbait pista eman dizkigu bere bere lanak ulertzeko. 3 zenbakiak egonkortasuna eta hiru ikuspegi esan nahi du pintorearentzat. "Gauzak ez dira ez txuri eta ez beltz, ez ona eta txarra; zerua edo infernua, kapitalismoa edo komunismoa, aberatsak edo pobreak... dena ez da bi. Bi ikuspegi horien artean dagoen hirugarrena da garrantzitsuen".

Euskal Herriak bizi duen egoera politikoarekin zerikusia dauka, "intenzionalitatez betea" omen dago erakusketak. "Batzenzat onak Aznar izango da eta txarra ETakoak; besteentzat ETakoak

onak izango dira eta txarrak Aznar eta PPkoak. Diskurtso binarioa dago baina garrantzitsuen hirugarrena da. Hirugarren hori herria da, herriaren hitza".

7ak ere esanahi berezia dauka Patxiarentzat. Zazpi etxe, zazpi zati... azaltzen dira bere koadroetan. "Euskal Herria osatzen dugun zazpi probintzien isla". Etxeak denak ezberdinak dira, zazpi probintziak.

Gorria

Kolore gorria erabiltzen du. Patxiaren esanetan, koloreetan, benetako euskal izenak txuria, gorria eta beltza dira.

GESTORIA Biok

ASEGURUOK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA



Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Garageak

salgai

➔ Garagea salgai Lazkaon, Ellosegi kalean. 23 m²-koa. 943-882813.

Lokalak

errentan

➔ 130 m²ko lokala alokatzen da. Almazan bezala erabiltzeko egokia. Hileko 48.000 pezeta. 616-411142.

Etxebizitzak

salgai

➔ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

➔ Pisua salgai Beasainen. Erdi mobleztatua. Egoera onean eta prezio interesgarria. Garajea aukeran. 943888318.

➔ Seguran etxe adosatua salgai. 153 m². Lorategia eta garajearekin. 943-881550.

➔ Jatetxea, taberna eta bi pisu salgai. Altsasun. 4.000 m²ko lursailarekin. 948563512. Gaez.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen: 2 logela, egongela, sukaldea, bainua, terraza eta trastalekua. 60 m². 656721266.

➔ 3 logelako etxebizitza salgai Zegamako San Bartolome auzoan. Altzariekin nahiz altzaririk gabe. 943801788.

➔ Etxea salgai Lazkaon. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, bi balkoi, aluminiozko leiho berriak, gasezko berogailua etxe guztian. 943884096.

Animaliak

salgai

➔ Husky siberiarra eskaintzen da. Urtebetekoa eta etxean ñeizitakoa. 656745299.

➔ Urte eta erdiko aharia salgai. 943885102.

➔ Boxer arrazako txakurkumeak salgai, pedegreearekin. 696057346.

➔ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

opari

➔ 2 artzain txakur opari. Hilabete ingurukoak. Harrak. Norberak txertatu beharko ditu. 943885792.

lagun bila

➔ Dar naiz, cocker beltz eta gorria. Neska baten bila nabil. Nahi baduzu deitu: 943 889690

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Kadett GT-a salgai. Gorria. Extrekina. Ongi zaindua, SS-AF. Gaez deitu, 943-161941. Joseba.

➔ Enduro-ko Kawasaki KDX 125 cc. motorra salgai. SS-AN. 92. urtekoa. Egoera oso onean. 656 727300 - 943882907. Ibon

➔ Opel Corsa GSI beltza salgai. 943881802.

➔ Suzuki Address modeloko scuter motorra salgai. Matrikulatua. Erabili gabea (zozketa batean egokitua). Prezio interesgarria. 943187162.

Bestelakoak

salgai

➔ Intxaur landareak salgai. 943 80 13 79.

➔ Alessio markako 14"ko llantak salgai. Oso ongi zainduak, ia berria, 6 hilabetekoak. 943887458. Lan orduetan deitu.

➔ Tabernetarako egokia den hozkailua eta banaketan erabiltzeko tankea, 280 litrokoa, salgai. 943008023.

➔ Berogailuaren akumuladorea salgai. Berria. Egoera onean. 943887146.

Denetarik

➔ Eskiak, makilak eta botak salgai. Oso ongi zainduak. Boten zenbakia: 44^{1/2}. 619749637.

➔ Olivetti idaz makina elektronikoa salgai. 943882278.

➔ Eskusoinuak konpontzen dira, marka eta modelo guztiak. 943-470001. 17:00etatik 19:00etara deitu, ostegunetan izan ezik.

erosi

➔ Bigarren eskuko faxa erosiko nuke. 943 161476.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

SOLDATZAILE LAGUNTZAILEA

Goierri. Ref.: 28048/2

MERKATARIA

Goierri. Ref.: 28306/1

KABLEATZAILEA

Donostia. Ref.: 27683/5

INFORMATIKAN FORMATZAILEA

Donostia. Ref.: 28520/2

VISUAL BASIC IRAKASLEA

Donostia. Ref.: 28523/3

ELEKTRONIKOA

Donostia. Ref.: 27880/6

SOLDADURA IRAKASLEA

Deba Garaian. Ref.: 27382/4

EBALUAZIO TEKNIKARIA

Egailanen. Ref.: 28103/7

BEHATEGIKO TEKNIKARIA

Gasteizko Egailanen. Ref.: 28104/5

LAGUNTZAKO TEKNIKARIA

Egailanen. Ref.: 28106/5

CNC TORNEROA

Tolosan. Ref.: 27877/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

Lupulua biltzen Seguran 1952. urtean



Seguran, San Sebastianen, garagardoa edo zerbeza egiteko lupulua biltzen aritutako herriko neska-mutil koskorrak dira argazkikoak. Lupulu biltze hori zer ote den jakin nahian haritik tiraka hasi eta ondorengo berri jaso dugu.

1952an zerbeza lupulua izan zen Seguran. Gaur egun Zeraingo bidegurutzean zerrategia dagoenetik errekara bitartean zegoen soroan. Garagardoa egiteko erabiltzen den landare hau, Juan Maria Arrietak, gero txorixeroa eduki zuenak, landatu zuen.

4-5 metroko parrak jarri eta lupulua indibaba bezala, gora igotzen zen. Lora zuri handia ematen zuen eta lorea bera biltzen zen. Oso landara polita omen zen.

Landarea askatu eta lorea biltzen zen lurrean. Eskuekin biltzen ziuten. Lora

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Jabier Urrujulegi, Lurdes Galparsoro, M^a Jesus Rekondo, Nati Auzmendi, Xanti Telleria, Jesus M^a Ormazabal, Lierni Etxeberria, Lurdes Rekondo, M^a Tere Intxausti, Begoña Aldanondo eta M^a Tere Aranzadi.

Bigarren ilaran: Xanti Arrue, Felizitas Aranzadi, Rosario Agirre, Belen Aldanondo, Pako Ormazabal, Juan M^a Arrieta, Antoni Aranzadi, Iñaxito Etxeberria, Isabel Imaz, Remedios Imaz eta Niebes Telleria.

Beheko ilaran: Antton M^a Astaburuaga, Joanito Ormazabal, Axun Arrue, Rosario Arrue, Luis Agirre, M^a Angeles Rekondo, Ana M^a Auzmendi, Ana M^a Rekondo, Arantxa Intxausti, Arantxa Alustiza eta Begoña Urrujulegi.

apartatu eta zakuetan sartuta eraman zuten. Donostiako Leon zerbezeriara eraman zen.

Zerbezarik ez zuten ezagutzen artean lupulua biltzen ibili zirenek.

Juan Mari Arrietak berrikuntza bat baino gehiago ekarri zuen inguru hauetara. Tabako landareak aldatu zituen Goierriko hainbat sorotan.

Zer da lupulua?

Kanabazeoen familiako landare igokari, bizikor eta dioikoa, 7 metroraingoz hazten dena. Hosto aurkako, lobulatu eta horztunak ditu, lore arrak panikulatan daude eta emeak kono oboidetan biltzen dira. Hauek inguratzen dituzten ezkatetik garagardoa usaingoatzeko erabiltzen den substantzia bat, lupulina, jariatzen dute. Lupulina lore emeek jariatzen duten erretxina da, garagardoa usaingoatzeko eta mingosteko erabiltzen dena.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Harremanetan jartzeko dei 943 88 96 12 telefonora. Argazkiak itzuli egingo dizkizuegu.



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 19etatik 23etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

AMEB

TXOTX
DENBORALDIA
IREKI DUGU



Sagardotegia

ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9
LAZKAO

ZALBIDE

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**

Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA



KORTA

☎ 943 88 71 86

GABIRIA

OTATZA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteazkena zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 14tik zabalik

☎ 943 80 17 57

ZERAIN



aulia

TOLAREA
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

LARRETA

SAGARDOTEGIA
AMEZKETA



HARITZ
943 654 293
689 985 432



JOXE MARI
943 652 946
608 975 198



OSTATUA

SAGARDOTEGIA

☎ 943 885 829

OLABERRIA



TXIMISTA

Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE



☎ 943 18 01 19

ATAUN



BELEKU

JATETXEA


SAGARDOTEGIA

☎ 943 65 30 68

LARRAITZ



www.facilnet.es/chips/acv.htm



.....
Zure enpresak zerbitzua,
.....
aholkua, berriztatzea beharra
.....
badu, **ACV**.multimedia duzu
.....
publizitatezko enpresa.
.....

A L D E R D I
BERRITZAILEAREKIN
EGITEN DUGU LANA.



COMUNICACIÓN GRÁFICA
ACV. multimedia
C/Comercial Senpere, Of-1
20200 **BEASAIN** (Gipuzkoa)
Tel: 943 80 50 37